

JAKIN

ANDRE MONNOM

GOLKOKO KRISIA

ANTTON PEREZ DE CALLEJA

BI MUNDUEN ARTEKO GERRA

ALFONSO DUBOIS

NAZIOARTEKO ORDENU BERRIA

EDORTA ARANA

GERRA TELEBISATUA

PAULO IZTUETA

EUSKAL LITERATURAREN IRAKURKETA BEREZIA

LUIS MARI MUJIKA

EUSKAL KULTURAREN IKUSPEGI ELBARRIA

KOLDO ZUAZO

LUIS MARI MUJIKAREN OBJEKTIBOTASUNA

MARIANO FERRER

EGUNEN GURPILEAN

JOAN MARI TORREALDAI

1990eko EUSKAL LIBURUGINTZA

63

MARTXOA-APIRILA 1991



JAKIN

63

MARTXOA-APIRILA 1991

AURKIBIDEA

ENBAKI HONETAN	7
----------------	---

AI NAGUSIA	11
ANDRE MONNOM GOLKOKO KRISIA	

ANTTON PEREZ DE CALLEJA BI MUNDUEN ARTEKO GERRA	33
--	----

ALFONSO DUBOIS NAZIOARTEKO ORDENU BERRIA	39
---	----

EDORTA ARANA GERRA TELEBISATUA	45
-----------------------------------	----

AINBAT ABURU	53
PAULO IZTUETA EUSKAL LITERATURAREN IRAKURKETA BEREZIA	

LUIS MARI MUJIKA EUSKAL KULTURAREN IKUSPEGI ELBARRIA	59
---	----

KOLDO ZUAZO LUIS MARI MUJIKAREN OBJEKTIBOTASUNA	63
--	----

GUNEN GURPILEAN	69
MARIANO FERRER	

IBURUAK	91
JOAN MARI TORREALDAI 1990eko EUSKAL LIBURUGINTZA	

SUMMARY

THE GULF CRISIS

ANDRE MONNOM

André Monnon, member of the Belgian monthly "La Lucarne", analyses the Gulf Crisis in its historical, political, economical, territorial, geopolitical and international dimensions. He describes the protagonists of the crisis (the Iran-Iraq war, the Western World's support to Iraq, the annexation of Kuwait), oil as the main actor —though kept behind the scenes— and the ups and downs of international rights.

THE WAR BETWEEN TWO WORLDS

ANTTON PEREZ DE CALLEJA

According to the economist Antton Pérez Calleja, the Gulf War has revealed certain points that show we do not live in a single world. The first is the fact that we live in a world in which relationships are unequal, exploitative and subordinating. The second piece of evidence derives directly from the nature of the conflict: Iraq touched one of the weak points of the Western World: the guarantee and low price of the supply of energy. The third piece of evidence refers to the protagonist: it was not the whole of the Western World who acted, and least of all Europe —who clearly showed their impotence—, but the U.S.A.

THE NEW INTERNATIONAL ORDER

ALFONSO DUBOIS

For Alfonso Dubois, member of the Centre of Documentation and Investigation of the Developing Countries, *Hegoa*, a country cannot be both a democracy and an empire at the same time. If the first is chosen, the North-South relationship must be that of cooperation. If, on the contrary, the second is chosen, relationships are characterized by domination and coercion. The Gulf War has shown the unlimited ambition of the North. The only means of maintaining its hegemony over the South is power, which is used whenever needed.

THE TELEVISED WAR

EDORTA ARANA

Edorta Arana, lecturer at the Department of Journalism, analyses the behavior of the mass media during the Gulf War. Besides proving censorship to be the most efficient means of control, the Gulf War shows some other important aspects of the mass media: the fact that the more advanced countries keep control over information sources, the restricted capacity of using new technology, the lack of autonomy as far as the journalist is concerned and their weakness in relation to censorship, the ignorance of Arab and Islamic problems...

OPEN TO DEBATE

PAULO IZTUETA – LUIS MARI MUJIKI – KOLDO ZUAZO

The three articles in “... hainbat aburu” (Open to Debate) are part of a debate regarding literary and linguistic matters, the origins of which being two articles published in a dossier of n.61 of our magazine. Paulo Iztueta criticizes the limited point of view and absence of references in J.M. Lasagabaster’s article on the bibliography of the last three decades of the Basque literature. L.M. Mujika criticizes the bias shown in the same article, as well as the subjectivity that characterizes Koldo Zuazo’s article on the bibliography of linguistic matters, published in the same item. This very author, Koldo Zuazo, relativizes L.M. Mujika’s criticism.

NEWS TODAY

MARIANO FERRER

The journalist Mariano Ferrer comments on the facts and events of February and March that he considers to be worth underlining in this section. The subjects are: the Gulf War, the new International Order, the University of the Basque Country, the unsuccessful coup d’état of 1981, the consequences of the German unification, the scandal of the slotmachines, the motorway through Leizaran, the political-judicial affair in the Antoine Gaudino case, etc.

THE BASQUE LITERARY PRODUCTION OF 1990

JOAN MARI TORREALDAI

Joan Mari Torreal dai, sociologist, presents, as every year, a study of the publication of Basque texts in 1990. The research is divided into three parts: the study of the publications according to themes, literary genders, tendencies of the different Publishing Companies, etc.; a classification of the publication according to the schemes of UNESCO; and thirdly, a complete bibliographical list of the books published in 1990.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 63. zenbakia da eta 1991ko bigarrena.

Zenbaki honetako gai nagusia Golkoko Krisiaren inguruan mamitu dugu. Baina ikus dezakezunez, ez du monografia arrunt baten tratamendua. Zenbaki “zentratua” izango litza-teke hau, eta ez monografikoa. Luzera, adibidez, txikiagoa du: berrogei bat orrialdetako da eta ez aurreko zenbakikoa bezala, ehundik gorakoa. Tratamendu aldetik, bestalde, artiku-lu informatibo bat bakarra dago, eta gainerakoak eritzi-mailakoak dira.

Gai nagusia, bada, Golkoko Krisia da (krisia, eta ez gerra). Artikulu nagusiaren egilea André Monnom dugu, Belgikako *La Lucarne* hilabetekarikoa. Aldizkari honen eskuzabal-tasunari esker argitaratzen dugu Monnom-ek egindako dossieraren zati hau.

Egoeraren deskribapenaren ondoren, Antton Pérez Calleja ekonomilariak Golkoko gerratik atera dezakegun zenbait ondorio azpimarratzen du. Gauza bera egiten du Alfonso Dubois-ek, Hegoako taldekideak, nazioarteko ordenuari buruz. Eta Edorta Aranak, Informazio-Zientzien Fakultatekoak, gerra-garaian komunikabideek erakutsi duten menpekotasuna nabarmentzen du.

Hainbat aburu sailean, hiru artikulu ematen ditugu argitarara, hirurak *Jakin* 61. zenbakiko monografian agerturiko lanen inguruan. Paulo Iztuetak J.M. Lasagabaster-en literatura bibliografia kritikatzten du. Luis M. Mujikak ere artikulu berau eta Koldo Zuazok euskalaritzaz egina kritikatzten ditu. Koldo Zuazoren erantzuna dator hirugarren lekuan. Azken bi hauen lanak egunkarietan azaldu ziren.

Egunen gurpilean sailean Mariano Ferrer-ek bi hilabeteko gertakarien inguruan bere eritziak eta jarrerak agertzen ditu, llabur (baina ez motz), bizi (baina ez arin).

Eta, azkenik, *Liburuak* sailean, Joan Mari Torrealdaik 1990eko euskal liburugintzaren berri ematen digu, agian azken aldiz, 14 urtetan egin ondoren. Urtero bezala, 1990eko liburu-zerrenda osoa eskaintzen du; eta, urtero bezala hau ere, liburu-ekoizpenaren lerro nagusiak aztertzen ditu.

G AI NAGUSIA

ANDRE MONNOM

GOLKOKO KRISIA

ANTTON PEREZ DE CALLEJA

BI MUNDUEN ARTEKO GERRA

ALFONSO DUBOIS

NAZIOARTEKO ORDENU BERRIA

EDORTA ARANA

GERRA TELEBISATUA

GOLKOKO KRISIA

Inguruaren biran. Erreferentziak
eta benetazko interesak

ANDRE MONNOM

Berlingo murrua suntsipenak irensten du 1989ko azaroaren 9an eta, berarekin, mendeetan harro eta zut iraun behar zuela zirudien mundua behera dator. Ekialdeko herriek beren iragana zapuztu egin dute. Mendebaldeak, harrri eta zur, espero ez zuen filmearen garapen azeleratua dauka begien aurrean. Ekialde-Mendebaldearen arteko tentsioa aienatu egiten da. Gerra hotza, iragan ahotsa. Bakearen haizeak laztantzen du mundua.

1990eko abuztuaren 2an, oportzaleak hondartzan beltzarran jarri nahirik, oskarbi ederrean ostotsa lehertzen da. Brusselatik hegazkinez bost ordura dagoen Irakek Kuwait

inbaditzen du. Bapatean, bakeaz gozatzeko aberatsegia den Golkoak erakartzen du planeta osoaren arreta. Larriak eta izuak mundua beren egiten dute.

Ekialde-Mendebaldearen arteko oposizioaren ondoren, Sartalde-Sortaldearena edota Ipar-Hegoarena ote datorkigu? Baina zer gertatuko da hiru erlijio monoteisten, hots, judaismo, kristautasun eta islamismoaren sorlekua izan den eskualdean? Istilu sortu berria, ez ote da nazioarteko krisien serie berri baten lehena izango?

GOLKOKO KRISIAREN AKTORE ZUZENAK

IRAK

**Hainbat gogorapen historiko: Irak, munduko zibilizazio zaharrena-
ren sorburua**

Zaharra bezain goresgarria du Irakek bere historia. Gaurko Irak garai bateko Mesopotamia da, hots, “Ibaien arteko Herraldea”. Bi ibai hauek —bikiak— Eufrate eta Tigris dira eta biek bat egiten dute Irak eta Iranen arteko muga-istiluaren zioa den Chatt Al-Arab osatzeko.

Duela sei mila urte jaio zen Mesopotamian munduko zibilizatorik zaharrena. Gizonek bertan hiriak eraiki zituzten gizonentzat eta tenpluak jainkoentzat. Lehen keramikak sortu zituzten, eta baita lehen idazkera asmatu ere. Beren eskulturek gizon--emakumeen aurpegiak ederra isladatzen zuten. Gailurrean santutegia zuten piramide itxurako *zigurat* tenpluek beren erlijio-sena adieraztera ematen zuten.

Geroago, natura eta heriotzaren aurkako gizonaren burruka goraiatzaren zuen *Gilgamesh* epopeia, idatzi baino lehenago abestu egingo zuten. K.a.ko 1750 inguruan, *Hamurabiren kodea* izango da, indartsuak ahula zanpa ez dezan, gizonaren justiziak lehenengoz burututako saioa.

Hainbat gogorapen bibliko: Irak, monoteismoaren sorburua

Bi mila urte K.a.tik, Kaldeako Ur hirian —Mesopotamiamen hegoaldean— bizi zen Abraham, Jainkoak deitu eta “utz ezazu zeure herria, zeure ahaidegoa eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik adieraziko dizudan herrialdera” (Gn 12, 1) esan zionean. Haran-era iritsi zen, iparraldean, Kanaango herrialdea helmuga zuelarik.

K.a.tik 597an, Nabukodonosor, Eufrate ondoko Babilonia hiriko erregeak Jerusalem konkistatu zuen, erregez aldatu eta kapareak eta artisauak atzerriratu egin zituen (hauen artean Ezekiel profeta). 587an, err esistentziaren hondarrak desegin eta hiria eta tenplua suntsitu zituen, erresuma bereganatu eta populazioa erbestera bidali (Erregeen 2. liburua, 24 eta 25 kap.). Erbestaldi luzea izan zen, pertsiarren Ziro erregearen laguntzaz 539an erbesteratuen liberazioa heldu zen arte (Pertsia da gaurko Iranen antzinako izena), babiloniarrek garaitu ondoren. Erbestaldi horretako profeta handiak Ezekiel, Jeremias eta Isaias izan ziren.

Saddam Husseinen Irak, gaur

1534az gero inperio otomanoaren parte zen Irak. 1920an, turkiarren gandik aske, britainiar protektoratu (“allégeance”) bihurtzen da. Irakiar Errepublika 1958ko uztailaren 14eko iraultzaren ondoren sortzen da.

Sirian bezalaxe, Iraken ere, komandoburuak atxilotu egiten ditu arabiar *Errenazimendua* kontsideratzen den Baas alderdiak. Hiru zutabe ditu alderdi honek: arabiar batasuna, estatuaren sozialismoa eta laikotasuna. Saddam Husseinek gobernuzale amorratu bihurtuko du alderdia. Honela, Iraken historia prozesu politikoen, kontuak erabakitzeen eta hilketen sail luze bilakatuko da. Biktimak, berriz, kurduak, komunistak, xiitak, momentuko oposiziokoak. Lehiakide potentzialak, susmagarriak izango dira. Pertsonalitatearen kultuak gailurra jotzen du. Saddam Husseinek ez du jadanik lehiakiderik. Goi-funtzio guztiak eskuratuak ditu. Alderdiak

badu beso armatu omnipresentea. Labur esanik, itogarria benetan bere diktadura.

Irak-Iran gerra (1980ko irailak 22 - 1988ko abuztuak 20)

1979ko uztailaren 16az gero, bere herrian jaun eta jabe, Saddam Husseinek 1980ko irailaren 22an Iranen aurkako gerrari ekiten dio. Muga inguruko hainbat istiluren eta Chatt Al-Arab-en subiranotasuna errebindikatzearen ondoriozko erabakia da.

Halaber, arabiarren nagusigoa finkatzea nahi du arabiarra ez den Iranen indarra ahultzeko, honek ere eskualdeko hegemonia nahi bait du. Baina, bereziki, kutsadura-mehatxu da Iran Irakentzat, 1979ko otsailaren lehenengoan, Jomeini ayatola Teheranera iritsi orduko —Sha eroriz gero— Iran berehalaxe deklaritzen bait da islamiar errepublika. Honek xiismoaren lehentasuna aldarrikatzen du mundu musulmanaren baitan eta iraniarrei eskatzen die burruka dezatela beren erlijioaren garaipena eskuratu arte, inolako kontzesiorik egin gabe bestelako joerak dituzten musulmanei ezta islamiar herrialdeetako ateoei eta ezta Mendebaldeko gidariei ez Ekialdekoei ere. Honela bada, Irakek, erregimen *laikoak* harturik, bere populazioan %60 ditu xiitak. Beraz, bada arrisku handirik populazioar en gehiengoak iraniar xiismoaren arrakastari jarraitzeko. Errealitatean, irakiar komunitate xiitak entzungor egin die Irandik jasotako deiei, hots, Saddam Husseinen erregimen laikoaren aurka saiatzeko deia.

Irakiar armadaren garaipen batzuen ondoren, derr ota aipagarriak ukan zituen Iranen eskutik, honen erresistentzi ahalmena gutxietsi zuelako. Baina Jomeinik, Saddam Hussein eroria ikusi gogoz, gerra honi amaiera emateko irakiar proposamenak arbuiatzean datzan okerra burutuko du, 1988ko abuztuaren 20 arte iraungo duen gerraren amaiera arbuiatzea alegia. Gerraren balantzea biziki astuna izan da: zortzi urteko gerra, 1.200.000 hildako, iraniar galerak hiru bider Irakenak baino handiagoak. 50 eta 70 mila milioi dolar

xahutuak armak erosten. Herrialde bakoitzak 100 mila milioi dolar inguru beharko ditu bere eraikuntza mamitzeko. Eta gainera gerrak ez du eman garaile onetsirik. Labur esateko, gerra garestia eta alferrikakoa.

Mendebaldearen sostengua Iraki

Irak izan al da Iranen aurka garaipena lortu duena? Ez al da, areago, Mendebaldeak lortu duela Irakek gerra ez galtzea? Egia da Saddam Husseinek hornitu dituela tropak. Baina, esan behar da, nazioarteko koalizio indartsu batek finantziatu duela bere gerra-esfortzua 2.400 mila milioi franko belgaren balioko laguntzarekin eta bere arerioa ekonomikoki asfioxiatuz.

Estatu Batuek Iran zuten Ekialde-Erdian Mendebaldearen presentzia eta indarraren oinarrietako bat, beste biak Israel eta Saudi Arabia izanik. Sharen erregimena babestu zuten, diktadurazko erregimena, helburutzat bere herriko ohiturak eta kultura aldatzea zuen diktadura, herria Mendebaldeko ekonomiei sendo lotuz. Baina kulturak, kasu honetan islamismoak, erabat antinazional eta herriaren aurkakotzat kontsideratuz, arbuiatu egin du mendebaltze-saioa. Estatu Batuek, orduan, oinarri hau galdurik, Iraki eutsi zioten asmorik jatorrenarekin.

Sovietar Batasuna bera ere beldur zen Irango islamiar iraultzaren suak ez ote zituen hartuko bertako errepublika musulmanak. Aipatu behar da SESBeko 50 milioi musulmanak laster 80 milioi izango direla eta guztien multzoak populazioaren bostena gainditu egiten duela.

Gertaera hauek baino askoz lehenago, Frantzia benetan Iraki atxekia aurkitzen zen, Frantziak aliatu ekonomiko eta estrategiko apartekoa zuenez gero.

Golkoko arabiar Subiranoek laguntza handia eskaini zioten Saddam Husseini Teherango xiiten beldurraren eraginez, hauek ez bait zuten izkututzen petrolioan finkaturiko monarkia aberatsez beste egiteko asmoa.

Honela, Jordaniaren ekonomia irakiar armadaren atze-basea izateak garatu du, kasu honetan.

Libanon, Aun jenerala, Siriaren aurkaria berau eta baita honek Beiruten babesten zituena ere, irrikitzen egon ohi zen behar zituen armak Bagdaden aurkitzeko.

Irakek bitartean adiskide zituen Marokko, Egipto eta Saudiar Arabia, hots, Mendebaldearen aldeko bloke kontserbadorea, baina ez Estatu erradikalak: Siria, Libia, Aljeria eta Hego-Yemen.

Beste herrialde batzuek benetako etsaigoa adierazi diote Iraki, besteak beste, nazioarteko terrorismoa sustatzen zutenaren susmoa zutelako.

Lehenik Israel izan da Amerikari erositako armak Irani saldu diona, honen etekinekin Nikaraguako *contra* antisan-dinistari eusteko. Hauxe izan zen *Irangate* eskandaloa.

Siriako Hafez el'Assad lehendakariak Saddam Hussein bere lehiakide jotzen du, bakoitzak izan nahi bait du *Baas* alderdiaren gidari eta bere proiektuaren bideratzaile.

Azkenik Britainia Haundia, inguruetako jaun eta jabea 1958 arte. Thatcher andreak beti harro erakutsi zuen Saddam Husseinekiko tinkotasunik sendoena.

Munduko herrialderik gehienak, beraz, Iraken alde eta Jomeiniren aurka agertu ziren. Zortzi urteko gerra honetatik Irak benetan unatua atera zen, gerra ez galtzea Mendebaldearen laguntzaz izan zelarik. Eta hara etsaigoak amaitu eta apenas bi urtera, Saddam Husseinek, bere herri odolustua-ren buru, 70 mila milioi dolarreko zorraren zamapean, non inbaditzen duen eta bereganatzen Kuwait. Nola interpretatu behar da hau?

IRAKEK KUWAIT ANEXIONATU (1990 ABUZTUAK 2)

Kuwait ñimiñoa, aberatsa eta eragabea

Irak eta Saudiar Arabiaren artean kokatzen den emirgoa da Kuwait eta pertsiar Golkora jotzen du. Apenas den Walonia baino handiagoa: 18.000 km² inguru; gero, 5.700 km²-ko

“eskualde neutroa” hegoaldean, emirgoa Saudiar Arabiatik bereizten duena eta 1970ean bi herrialdeen artean banaketa administratiboaren objektu izana.

Bi milioi biztanle ditu eta hauetatik 820.000 bakarrik kuwaitiar. Gainerako populazioa atzerritarrek osatzen dute: petrolioaren sektorean enplegatzen diren 3.000 amerikarrek, 4.600 britainiarrek, petrolioaren industrian eta hainbat negozioetan ari direnek. Askoz gutxiago dira frantsesak, alemanak eta italiarrak. Komunitaterik sendoena palestinarrak osatzen dute, 400.000 inguru izanik. 50.000 egiptiarrak irakaskuntzan ari dira bereziki. Inbasioaren aurretik, bertan ziren 60.000 irakiar, 100.000 indiar, 85.000 pakistaniar, 70.000 srilankar, denak eraikuntzan eta zerbitzuetan lan-eskuaren erreserba izanik. 60.000 filipinar, gehienak nes-kame.

Kuwait arrantzatik eta perla-industriatik bakarrik bizi izan da ia, baina petrolioak aldatu du herri honen bizimolde ekonomikoa. 1938an aurkitua eta 1946an ustiatua, hamar urte geroago petrolioaren prospekzio sistematikoa burutu zuten Ekialde Hurbileko petrolio-sozietateek. 1971an, Kuwait munduko 7. petrolio-produktorea zen. Eskualde neutroko petrolio-guneak erdizka banatzen dituzte Kuwait eta Saudiar Arabiak. Ekialde Hurbileko Estaturik aberatsenetakoa da Kuwait. Bere produkzioaren 2/3 Europara esportatzen du eta honela garrantzi ekonomiko mundiala eskuratu du.

Finantzi inperio erraldoia

1980an, petrolioaren produkzioak eguneko 1,3 milioi upela lortzen zuen (upela = 158,8 litro) eta errenta 18 mila milioi dolarrekoa zuen. Errenta hau moteldu egingo du produkzioaren eta prezioen beherakadak, 1987an 5,4 mila milioi dolarrera jaitsiz. Baina Kuwaitek 92 mila milioi upela ditu petrolio-erreserbatan eta munduan bigarren lekua gordetzen du Saudiar Arabiaren hurrengo. Burganeko petrolio-putzu bakarra bigarrena da garrantziz.

Kuwait izan da lehena, prospekzioen ondoren, petrolioan inbertitu duena Kuwaiten eta munduan ere, “putzutik ponpara” banaketa lortu duelarik —garraio eta birfinketa barne—. 1983an, bere produkzio osoaren bi heren komertzializatzeke gauza zen banaketa-sare propioa erdietsia zuen (6.000 hornitegi Q 8) eta baita Europan egunean 135.000 upela birfintzeko gaitasuna ere.

Kuwaitiar Estatuak, Al-Sabah familiak alegia, bere petrolio-etekinak industrian, altzairuaren eremuan eta nekazaritzan berrinbertitu ditu, bost kontinenteetan. Bere akzio-kartera 100 edota agian 200 mila milioi dolarrekoa uste da.

Kuwaitiar ondasunak dira mundu osoan ongien kudeatuak. Operazio guztiak KIO (Office koweitien d'investissement) erakundeak bideratzen ditu. KIO bilakatu da 1990ko abuztuaren 2ko inbasioaz gero, benetako *gerra-altxor* baten jabe legal bakar, 100 mila milioi dolarreko izugarritzko altxorren ena, Mendebaldeko finantzi zentru handi guztietan kokaturik. 1990eko abuztuaren 2an, Ali Khalifa Al-Sabah xeikeak, finantzi ministrari kuwaitiarrak, gutun ziurtatu eta berme legal guztiez horniturikoa egin zuen Estatuaren ondasun guztiak KIOri transferitzeko, sinadura bere lehendakariari emanaz. Transferentzia hau behar bezala erregistratu zuten ondasunak blokeatu baino lehen Mendebaldeko gobernu guztiek. Halaber kontserbatuko du gobernuak erbestaldian ondarearen multzoa jagoteko eskubidea.

Kuwaitek Mendebaldean dituen inbertsioetatik lortzen duen errenta askoz handiagoa da, behar bada bikoitza, petrolio saltzetik lortzen duena baino. Kuwaitek OPEPen dituen ordezkariak ez dute inoiz onartzen prezioa igo erazteko petrolioaren produkzioa jaitea nahi duten herrialdeen jarrera, hala nola Irak eta Iranena. Mendebaldeko talde kapitalisten akzionista direnez eta, beraz, dibidenduak jasotzen dituztenez, ez daukate zer irabazirik *petrolio-karak* berri baten ondoriozko Mendebaldearen hondamen ekonomikoarekin.

Ukantsuen gizartea

Kuwaitiar hiritarrek, populazioaren %42ek, munduko errentarik altuena dute. Abantail-sail handia dute gozagai:

irakaskuntza doan, osasun-kostu guztien kargarik eza, hainbat prestazio etxebizitza, lanbide, jubilazio eta abarretarako. Biztanlego autoktonoak badu, beraz, interesik Estatuarekin eta bere erregimenarekin identifikatzeko.

Gutxiengo ukantsu honen alboan, langile etorkinen jendetza bizi da. 1948az gero iritsi ziren lehenengoak palestinarak izan ziren, ekonomiaren garapena bultzatu dutenak. Ez dute etxeratzeko posibilitaterik, israeldarren eta arabiarren arteko gatazka dela eta. Beste hainbat etorkin egiptiarrak eta iraniarrak dira: 1980ko hamarkadaren iritsieran hasiko da asiar herrialdeetako etorkinen uholdea: indiarak, pakistaniarrak, srilankarrak, filipinarrak, politika aldetik arrisku gutxiagokoak eta soldatarenetik ez hain zorrotzak.

KRISIAREN SORBURUAN

Aspaldiko lurralde-arazoa

Istiluaurren urrutiko zioa lurralde-arazoa da. Inperio otomanoaren suntsipenak muga nahikoa arbitrarioak sortu zituen. Badirudi kolonizatzaile ingelesak Irak itsas-potentzia ez bilakatzea zutela helburu. Hain zuzen ere, ez zaio eman Pertsiar Golkora sarrera zuzenik Basoraren portuko sarbideak Chatt Al-Arab-etik barne babes zitzan. Irakek ez du inoiz Iranengandik anomalia hau ezabatzeko muga-aldaketarik lortu. Kuwaiteko erregetiar familia ere ez da inoiz gogo onez prestatu mugak zuzendu eta Iraken eskaerak onartzeko. Golkorako sarbidea menderatzen duten Boubiane eta Warda irlak akuratzera oraintsu adibidez. Honi darraikio, beraz, irakiar herriaren baitan mamituriko frustrazio-sentimentu sakona. Saddam Hussein pozik zitekeen bi irla hauek inbaditu eta lehorreko muga bortxaz zuzentzeaz, bertan Rumeilda petrolio-gunea inkluditu asmoz. Nazioarteko ondorioak ekar ditzakeen krisiarekin ausartu bada, garapen gaiztoak ukan ditzakeen krisia lehertu badu, *zerbait gehiago* bazegoen seinalea.

Statu quo ekonomiko eta politikoa kuestionatzea

Helburu politiko zehatza zuen beren petrolio-salmentaren kopurua eta prezioa dominatzeko arabiar herrialdeek 1973an hartu zuten erabakiak: arabiar eta israeldarren arteko gatazkaz mundu osoaren eritzia iratzartzea eta Mendebaldeko herrialde kontsumitzaileak Israeleko zuzendarien baitan presioa egitera bultzatzea, NBERen erabakiak aplikatu eta Israelek 1967az gero bereganaturik dituen lurraldeak bertan behera utz ditzan.

Orduz gero, Ekialde Hurbileko *statu quo* ekonomiko eta politikoak geroz eta okerragoa dirudi arabiarrentzat eta onuragarriagoa Israelen hedakuntzarentzat. Honela, hain zuzen ere, benetan adoretsu agertzen du bere burua, palestinar lurraldeetan Sovietar Batasunetik etorriko den juduen komunitate jendetsua kokatzeko duen asmoa dela eta.

Mendabaldeko herrialdeek ongi baino hobekiago ulertu dute Irakek Kuwait inbaditzeak nola bertako hala nazioarteko herrialdeek gozaten duten *statu quo*-aren iraulketa dakarrela. Erraz ulertzen da, beraz, beren errakzio bizkor eta sendoaren neurrigabetasuna, nola Ekialde Hurbilean hala areago ere, azken urteotan behin eta berriro gaur bere alde agertzen direnek iraindua izan den nazioarteko zuzenbidearen izenean hartua.

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA DEFENDATZEA?

Golkoko krisiak sortu duen erreakzioak, ikuspegi etiko batetik, itxaropenaren ekarle lirudike. Baina maiz aski bote-rearen sorburu eta helmuga dirua eta armak dituen mundu honetan, hara non Estatuek ia aho batez nazioarteko zuzenbidea aldarrikatzen duten eta orobat Nazio Batuen erabakiak, Golkoan bakea eta justizia ezarri asmoz.

Aldarrikapen eder hauek, ordea, herrien gogora hainbat eta hainbat gertaera dakarte, aipatu aldarrikapenak gabe,

historiaren ziega ilunean ahantzirik geratzeko arriskuan leudekeenak. Batzuek azpimarratzen dute, eta ez arrazoirik gabe, dei patetiko eta birtutetsu hauek sineskorragoak lirajtekeela Golkoko beren ekintza bizkor eta sendoa legitimitatez jazteko gaur aldarrikatzen dituzten printzipioak eur ek berek behin eta berriro ez balituzte ohondikatu.

International Herald Tribune egunkari amerikarrak, Kuwait inbaditua izan baino bi egun lehenago, Estatu Batuetan “nazioarteko zuzenbidearekiko erdeinu-jarrera” garatzea deitoratzen zuen. Eta bide batez Kanbodia, Grenada eta Panamako interbentzio armatuak aipatuz, autoreak berak, “Washingtonen (eta areago ere), nazioarteko zuzenbidearekiko begirunea atzerri-politika berri baten zutabe bezala berrezarria izatea” eskatzen zuen.

NBE-REN ORRI IHARRAK

Saddam Husseinek zuzenbidea hautsi du eta Kuwait eskuratzean piratakeria jauki du. Baina ez da lehenengoa eta ezta bakarra ere, lege-haustek egiten.

1974ean, turkiar indarrek Txipren lehorreratu eta irlaren iparralde gehiena menderatzen dute. Urte berean, Irango Shak Tambo irlak okupatzen ditu. 1979an, Sovietar Bata-suna Afghanistanen sartzen da. Siriak Libanoren bi herenak hartzen ditu 1978az gero. Israelek Libanoren hegoaldea okupatzen du 1979an eta Golan bereganatzen 1981an.

NBEren Segurtasun-Kontseiluak orri hil bihurturik geratu den erabaki-sail handia du harturik. Baliogabeko eta ondoriogabekotzat deklaratuak ditu Israelek Jerusalem buruz 1947az gero hartu neurriak, hala nola 1948an hiriaren alde modernoaren usurpazioa eta 1967an alde zaharraren. Okupazioak eta anexoioak Israeli okupatzailearen estatusa ematen diote boterea *de facto* aplikatzean, legaltasunik gabe. Honezaz gainera, Israel kontraesanean aurkitzen da nazioarteko legearekin eta 1949ko Genoako konbentzioar ekin, honen sinatzailea izanik, arabiar bizilagunen erauzketa, hauen ondasunen konfiskazioa eta kolonizazioa direla eta.

1967az gero, NBEk espreski eskatu dio Israeli 1967an okupaturiko lurraldeak uztea —Jerusalemeko hiri zaharra barne— 1948 eta 1967an botatako palestinar errefuxiatiei itzultzen uztea, okupaturik dauzkan lurraldeetan ezarri dituen koloniak desmontatzea —Jerusalem barne— eta kolonia berririk ez antolatzea.

NBEren 1980ko abuztuaren 20ko 478. erabakiak zentsuratu egiten du Jerusalem *Israeleko hiri eternal* aldarrikatzen duen *lege nagusia*. Misio diplomatikoak ezarri dituzten Estatu guztiei, berriz, Hiri Santutik joatea galdatu die Segurtasun-Kontseiluak.

Israeliek ez ditu batere aintzakotzat hartzen NBEren erabakiak. Hemen berriro ere, indarra lege. Israel leporaino armatua aurkitzen da, Estatu Batuei esker, honek urtero hiru mila milioi dolarreko laguntza ematen diolarik. Amerikar gobernua Estatu Batuetako juduen *lobby* boteretsuak bortizki ikaratua dauka eta ez dio inolako presiorik eragiten Jerusalem eta Segurtasun-Kontseiluari, bere ordezkariak sistematikoki ezartzen bait du betoa Israel santziopean ezarriko lukeen edozein erabakiren aurrean.

Washington Israelen eskaeren menpean aurkitzen da erabat, israeldar eta palestinarren gatazka dela eta. Menpekotasun honek kritika ugari sortarazi du, eta batzuk, juduen beraien ahotik gainera. Hona hemen, adibidez, Nahum Goldmann-ek, Munduko Juduen Kongresuaren lehendakariak zera zioena: “Azken urteotan Israelen aurrean amore gehiegi ematearekin, Amerikak ez bakarrik ez diola Israeli mesederik egin, baizik eta, luzarora begira, kaltea dakarkiola segurtatzen dut”.

Estatu Batuek ez dute Israel atsekabetu nahi eta Europak ere ez Estatu Batuak. EEEdo herrialdeen jarrera dezepzionagarria eta faltsua da. Israeliek nazioarteko zuzenbidea nabarmenki hautsi duela eta, alde edo aurkako mozioa bozkatu behar denean, inoiz ezezko boturen bat ematen dute, baina gehienetan abstenitu egiten dira. Nazioarteko arazoetan gisa horretako morrontza erakutsiz, Hego-Amerikak bezalaxe, Europak ere ezin izango du bere nortasuna aurkitu. Tesuinguru orokor honetan erraz neur daiteke 1990eko urria-

ren 8ko astelehenean, Jerusalemeko mezkiten lautadan hogeitabat palestinarren sarraskian zetzan gertaera dramati-koaren zenbatekoa.

1990eko urriaren 8ko astelehen goizean, burruka latzak izan ziren israeldar eta palestinarren artean Jerusalemen. Hogeitabat palestinar hilik eta ehundik gora zauritu gertatu ziren, batzuk oso larriki. Gertaerak munduaren eritzia asaldatzen du, arabiar mundua harri eta zur geratzen da eta anti-irakiar koalizioa egoera aski erakaitzean aurkitzen da. Jerusalemeko israeldar alkatearentzat hiri hau “batu” zen 1967ko urteaz gero bertan jazotako buruz buruko aurkaketarik latzen eta odoltsuena izan da. Gertaera honek indarrez harrotzen du Estatuak nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuen erabakiak aintzakotzat ez hartzearen arazo larria.

IZKUTUKO AKTOREA: PETROLIOA

KUWAITEN ALDE... ALA TEXACOREN ALDE HILTZERA?

“Mendebalde industrialduarentzat bidezko prezioan petrolio-iturri ziur eta egonkorra segurtatzea da Estatu Batuen interesik nagusi eta berebizikoena Golkoko krisian” izan zen M. Zbigniew Brzezinski, Carter lehendakariaren kontseilari-ohiak *Washington Post* egunkarian idazten zuena.

Horra gu abisuan jarriak! Golkoan aurkitzen diren amerikar soldaduak eta besteak nazioarteko zuzenbidea defendatzeko eta NBEren erabakiak bete arazteko al daude? Washingtondik telegidaturik, NBEren mobilizazioak biltzen dituen estatuak lehenagotik ez dituzte batzuetan NBEren erabakiak errespetatu eta ez dute, krisi honi irtenbidea aurkituko zaionean, aipatu erabakiak aplikatzeko asmorik: Turkiak Txipre okupatzen du, Siriak Libano, Israelek Golan, Jerusalem eta Palestina.

Saudiar Arabian esku hartzeko erabakia horren bizkor hartu eta erantzun militarra horren masiboa izan bada, jo-

koan interes ekonomiko eta estrategikoak daudelako izan da. Estatu Batuak mehatxupearan zeuden, munduko petr olio-produkzio osoaren laurdena kontsumitzen dutelako eta erdia inportatu beharrean aurkitzen direlako. Petrolioaren gaurko hornidura-sistema defendatu eta mantentzeko dago Golkokan amerikar armada, Saudiar Arabia ukitua balitz bertan behera ereriko bait litzateke aipatu sistema.

Estatu Batuak, gatazkari irtenbidea aurkitu ondoren ere, ez ote dira bertan geratuko, Golkoko kontrol politiko eta militarra zaindu eta hornidura iraunkor eta merkea segurtatzeko? Galdera ez da batere ezegokia!

GOLKOAN DENARI PETROLIOA DARIO

Golkoko krisia, petrolioaren krisia! Golkokan denari dario petrolio. Irak, hirugarren petrolio-esportatzailea, zorrez habildua aurkitzen da Iranen aurkako bere gerra luze bezain alferrikakoaren ondoren. Petr olio-produkzioa eta prezioa menderatzeko, beste herrialde bat inbaditzen du, Kuwait, beste petrolio-esportatzaile nagusi bat, aberatsa gehiago ezinean, eta prezioa igotzeko interesik ez duena.

Irak bere punturik ahulenean —petrolio-errentan— astintzea erabaki dute Nazio Batuek: enbargoa alegia. Irakek Iranen bitartez nahi izan du enbargoa baztertu ahalik eta gehian iraun ahal izateko eta tentsioa sortzeko. Halaber, eskualdeko petrolioguneak ezandarazi eta instalazioak airean botatzea mehatxatzen du.

Petrolio da, hain zuzen ere, Mendebaldearen punturik sentikorrena. Blokeoak Golkoko esportazioen herena paralizatzen du. Gerra-mehatxuek prezioak gora jotzera bultzatzen ditu espekulatzaileak. Eta krisiak, hasi eta sei hilabeteren buruan, gordinaren kotizazioa bikoiztu egiten du, kolokan ezarriz mundu osoko hazkunde ekonomikoa.

Energiaren Nazioarteko Agentzia biltzen da. OPEP aparteko bileran batzartzea eskatzen da. Washingtonen eta areago ere bai, energi ekonomiaren neurriak prestatzen dira. Mendebal-

deak lortuko ote du 1973 eta 1979ko krisiak bezalako beste petrolio-krisia ekiditea? Mendebaldarrek beren buruak zigortzen dituzte irakiar kanilak istean.

Azken finean, joko politikoen atzean, Golkoan gertatzen dena eragin handia izango du urre beltzaren etorkizunean.

PETROLIOAREN BENETAKO BIKTIMAK

Golkoko krisiak baditu jadanik bere biktimak: petroliorik ez duen hirugarren mundua eta Europako ekialdeko herrialdeak. Petrolio-kontsumitzaileak diren herrialde guztiei astunagoa egingo zaie petrolioaren faktura. Herrialde aberatsek —Japoniak, Mendebaldeko Europak eta Estatu Batuek— hartuko dituzte, dudarik gabe, energi ekonomiarekiko neurriak eta energia alternatiboak garatuko dituzte.

Baina zoritxarrekoak petroliorik ez duten Afrika eta Latin-Amerikako herrialdeak eta Ekialdeko Europa. Behar duten petrolio garestiago ordaindu beharko dute. Munduko ekonomia moteldu egingo denez, beren lehengaien errentak beharpena jasango du. Duten zorraren zerbitzua ordaintzeko behar dituzten dibisen bolumena murriztu egingo zaie, Afrikarentzat bakarrik 100 mila milioi dolarreko zorra. Petrolio-produktoreak diren afrikar herrialdeek bakarrik, hala nola Nigeriak eta Angolak eta Latin-Amerikan Mexikok eta Venezuelak ikusiko dute beren errenta hobetzen eta krisi honetatik abantailak lortu ahal izaten.

Beste herrialde batzuk, hala nola Tantzaniak, gosea eza-gutzeraino izango dira ukituak. Brasil eta Argentinak laster ezagutuko dute egoera kritikoa. Kuwaitiar “kanilak” istek kolpe latza emango die Asiako herrialdeei. Pakistanek, adibidez, Kuwait zuen bere petr olio-produktu guztien hornitzailea, preferentziazko tarifak aplikatuz. Petr olio garestiago erostera beharturik, urtero 200 milioi dolarretan haziko da petrolioaren bere faktura.

Marokkorentzat ere larria izango da egoera eta orobat Saharaz hegoaldeko herrialdeentzat, Indiarentzat, Filipina-

sentzat. Benetako beste biktima bat: Ekialdeko Europa. Sovietar Batasunak adierazia zien demokrazia berriei 1991ko urtarrilaren lehenengoaz gero, soviatar petrolioak dolarretan ordaindu beharko zutela eta munduko merkatu-pr ezioan. Upelaren prezioak lainotara jo baino lehen ere, err eforma honek berak bakarrik %90etik %120ra bitartean egingo bide dute beren petrolio-faktura astunago. Beraz, *shock* bikoitzari aurre egiteko etsirik daude.

Honi erantsi behar zaizkio herrialde batzuek jasango dituzten irabazpide gehigarrien galerak, hala nola Egiptok, Pakistanek, Sri-Lankak, Filipinasek, hau da, Iraken edo Kuwaiten zeuden langileak atzera itzultzean, hauen bidez sartzan ziren dibisak galdu egingo dituztelako. Pakistanen, sarrera hauek 1,8 mila milioi dolarrekoak ziren urtero. Afrika, Asia eta Latin-Amerikako herrialde askorentzat, Golkoko krisia, dituzten egoera politiko ezegonkorrei erantsirik, sorgotasun ekonomiko iraunkor baten kausa izan daiteke.

KRISIAREN ONURADUNAK

Golkoko krisiak biktimak sortu ditu, baina batzuentzat oparia da. Luxenburgon, hornitegiko gasolina-litroa 10 franko merkeagoa dago Belgikan baino. Botere publikoak gasolina-prezioari “accises” deitu tasak eransten dizkio. Gure herrian, gasolina-litro bakoitzak estatuari gutxienez 21 franko aportatzen dizkio, %25eko BEZa erantsirik. Hala ere, belgikar Estatuak, beste herrialde kontsumitzaileek bezalaxe, ikusten du bere petrolio-faktura hazten ari zaiola. Galerak irabaziak neutralizatzeko arriskua dago.

“Merkatu libreko” espekulatzaileak

Prezinoa eratzeko modua da aski garbi agertzen ez dena. Logikaren arabera, hornitegiko gasolinaren prezioa finkatzeko aski litzateke petrolio gordinaren erosketa-prezinoa hartu —produktoreari ordaintzen zaiona, alegia— eta honi garraio eta birfinketarena, aseguruena, estokaldiarena eta etekin-

-margenarena eranstea. Ba, ez! Petrolio-produktuen prezioa *merkatu librean* petrolioaren kotizazioak zehazten du. Guk aingeruki uste izaten dugu *merkatu libre* hau petrolioia saldu eta erosten den merkatua dela. Baina ez, petrolio-ttanta bat ere inoiz ikusi ez eta *petrolio-materiaz* interes apurrenik ere ez duten pertsonak petrolio-prezioaren igoera eta beherakadez espekulatzen dute eta burtsan erabakitzen da. Beren ardura bakarra dirua irabaztea da. Igoera espero duen erostle-espekulatuak epera erosten du prezioa baxua denean (hain zuzen, bertan kantitate bat ordaintzen du, %10 adibidez) eta epemuga baino lehen berriro saldu egiten du kotizazioak altuen daudenean. Prezioen beherakada espero badu, oraindik ere ez duen merkantzia epera saltzen du, berriro epemugan eta prezio baxuagoan erosteko. Beraz, ez gara ari *petrolio-materiaz* baizik eta *petrolio-paperaz*. Benetako etekin-iturria da, baina galdetzekoa da ea ez al den eskandalagarria kontsumitzaileari ezartzen zaion prezioa espekulatuak erabakitzea.

Petrolio-konpainiak

1990eko irailak 7an, telebistako emanaldi batean, Volk-sunie ministrordeak, Hugo Schiltz-ek, petrolio-konpainien *gain-etekin lotsagarriak* salatzen zituen. Petrolio-konpainiek ez dute petrolioia *merkatu librean* erosten. Kontratuak dituzte herrialde produktoreekin. OPEPek ezarritako prezioan erosten dute, azken hilabeteotan apenas aldatu den prezioan, upela 18-21 dolar inguruan. Eurek, ordea, *merkatu libreko* prezioan saltzen dute, 40 dolar inguruan. Konpainiek petrolioia OPEPen prezioan erosten dute eta *merkatu librekoan* saldu.

Egia esan, 1973ko petrolio-krisiaren ondoren, bada gobernuaren eta petrolio-konpainien artean halako kontratu-programa bat. Kontratu honek produktu-kategoria bakoitzarentzat salmentarako prezio maximoa finkatzen du, produktu birfinduen Rotterdameko *merkatu libreko* prezioa oinarritzat harturik. Kontratuak funtzionatzeko, prezio honek benetako prezioaz oso bestelakoa izan behar du. Beraz, kon-

tratu-programa honek ez dirudi gaur aplikatzen denik. OPEPen erreferentzi prezioa abuztuaz gero eguneratu ez denez, Ministeritza eta Petrolio-federazioa ados jartzen dira ordezeko erreferentzi prezioan. Baina hau ez al da arbitrarioa eta kontrolatu ezinezkoa?

Kainoi-merkatariak

Govachovek ekindako distentsioaren hasieran, soviatar goi-agintari batek zien amerikarrei: “Zuei txarkeria bat egi-tear gaude, etsairik gabe utziko zaituztegu”. Eta egia izan da politikoztat, baina egiagoa oraindik arma-merkatariantzat. Ekialde eta Mendebaldearen arteko gerra hotzaren amaiera ameskaiztoa da munduko arma-merkatariantzat. Gastu militarrek estabilizatu egin dira 1986 eta 1987an eta murriztu 1989 eta 1990ean. Sovietar Batasuna prezio eustezina ari da burutzen desarmearen alde, dozenaka urteetan armamentu-karrera probokatu duen giza energia eta dirutzaren lorrin lotsagabeak haserratu duen eritzi publikoaren benetako atseginerako.

Gainera, Hirugarren Mundua ez da jadanik arma-industriaren bezero pribilegiatua. Eromena izan da Iparraldeko herrialdeek 70eko hamarkadan Hegoaldeko herrialdeei saldu zieten arma-saila! Baina Hirugarren Munduko miseria hazkorrak sentikorki murriztu du merkatua. Zorionez (!) Irak-Iran gerra ezin egokiago etorri da, biei momentuz 250 mila milioi dolarren balioko arma-saila saldu ahal izateko. Halaber izan zen arma-merkatariantzat benetako katastrofea 1988an Iran-Irak gerra itzaltzea.

Esperantza berriro jaiotzen da, ordea, Golkoko istilu berriaren ondorioz. Konplexu militar-industrialaren erantzuleak lasaitu egiten dira. Urriaren 2an François Mitterrandek ekin eta George Bushk izugarrizko zuhurtziaz err eleboan harturiko *bake-logikak* ez zien alaitzeko batere biderik ematen. Naifkeria ezin biziagoak joa egon behar du *lobby* industrialak goi-erantzule politikoen baitan inolako presiorik ez dagiela uste izateko.

ONDORIOA: JUSTIZIAZKO LOGIKA

GEORGE BUSHEN SUMINDURA

Ulertzekoa! Hain luzaroan Mendebaldearen bihotzeko ninia izan den Saddam Hussein Estatu Batuetako lehendakariaren ustetan Hitler berri bilakatu da. Kuwait bereganatzen du. Munduko petrolio-portzentaia handienetakoa bil dezake bere eskuetan. Nazioarteko zuzenbidea err espeta-tzeari uko egiten dio eta baita Nazio Batuen erabakia aplikatzeari ere. Bere arerioak senetik ateratzen ditu bahituak era selektiboan libre utziz eta oraindik beste lau mila mende-baldar dauzka gogoz kontra atxilotuak Iraken eta Kuwaiten. Ez ote du eskualde osoa hankaz gora jarriko eta nazioarteko terrorismoa bultzatuko?

ARABIAZKO HERRIEN SUMINDURA

Arabiar hiritarrek ez diote Saddam Hussein aparteko onespik. Ez dute onartzen Kuwait inbaditzea, ezta irakiar erregimena ere, demokraziaren uko hutsa delako eta ezta herri kurduaren genozidioa ere. Eta hala ere, beren ustetan, Saddam Husseinek sinbolizatzen du aldaketa, *statu quo* higuinaren haustura. Ia aho batez hartzen dute amerikarren aurkako jarrera, Golkon petrolio-jauntxoen eta kainoi-fabrikanteen ordenua ezarri nahi dutelako.

Petrolio-monarkia aberatsen aurkako beren etsaigo txit hedatua dago. Emir ultraberatsek Mendebaldean inbertitzen dute eta Côte d'Azur-eko kasinoetan milioi bat dolar galtzeak ez die burukominik ematen. Arabiar herriak ez daude prest malko bat bera ere isurtzeko aipatu erregimenen alde. Kuwaiteko langile inmigratuen zortea ez zen jadanik desiragarria, nahiz eta jatorrizko herrietakoa baino hobea izan.

Nazkatuta daude nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuen erabakiak era selektibo lotsagarrian aplikatzen direlako. Arrazoiez oroiteratzen dute Palestinako arabiar herriaren alde

Nazio Batuek hartutako erabaki ugarietako batek berak ere mendebaldarren baitan ez duelako hunkipen nimiñoenik ere sortu edota santzio ebentualen bat aplikatzeko asmorik ere, ezta palestinar krisia erabakitzeko interes kaxkarrenik ere

Leporaino nazkatuta daude teorian askatasun eta demokraziaren printzipioen bozeramalea den Europa Ekialde Hurbilean beti eta kondiziorik gabe Estatu Batuekin lerratzen dela ikusteaz. Anomalia historiko hau azpimarratzen dute: herrialde zapalduen liberazio nazionalak nonahi zabaldu dituen XX mende honetan Palestinako arabiarrek Israeleko Estatuaren hegemonia militar, politiko eta ekonomikoa onartu beharrean aurkitzen dira, beraiei dagozkien lurraldeetan legearen aurkako inplantazioak eginez, israeldar kolonoz biztanletutako kolonian eraikitako Estatuaren hegemonia, laster Sovietar Batasunetik emigratuko duten ehun mila judu baino gehiagok apoiatuko duten hegemonia. Eta honi jokabide indibidualen ordainetan zigor kolektibo lazkarriak aplikatzen zaizkiolarik. Hego-Afrikako *apartheide*aren biktima diren beltzen pareko kontsideratzen dira. Saddam Hussein eskaintzen dizkioten txaloak injustiziazko hainbat urteren eta okupazioaren aurkako hiru urteko *intifadaz* gero ere inolako irtenbide politikorik ez ikusteak damaien inpotentzia eta amorruaren islada dira. Herri batek, zeinahi den ere, ezin dezake horrelako laidorik onar.

HIRUGARREN MUNDUAREN SUMINDURA

Hamabost edo hogeitau urteren buruan, Golkoko eskualdea ia munduko petrolio-iturri osoaren —%85aren— jabea izango da. Mendebaldeak kezkatu begiratzen dio etorkizun honi. Ezin uka baduela arriskurik urte beltzaren gisa honetako kontzentrazioa hainbaten eskuetan biltzeak.

Munduan bakea nahi bada, bidegabezko eta arriskugarria da gutxiengo pribilegiatu batek bereganatzea petr olioaren ondasuna: munduko populazioaren %22ko gutxiengoak pila-tzen du petrolio-kontsumoaren %73. Estatu Batuek, hau da, munduko populazioaren %4,8k, munduko petrolio-kontsu-

moaren laurdena berenganatzen dute. Golko aldeko produktioaren kontzentrazioa. Mendebaldearen kontsumo-kontzentrazioa.

Mendebaldeak hainbat *petrolio-shock* jasan ditu, hala nola 1973 eta 1979an. 1959 eta 1960an, nazioarteko petr olio-konpainiek beren aldetik erabaki zuten petrolio gordinaren prezioak murriztea kontsumitzaileei beren salmenta-prezioak batere jaitsi gabe. Beren intrantsigentziak egin zuen 1960an OPEP (Petrolio-Esportatzaileen Herrialdeen Erakunde) eratztea. “Ez bakarrik erosten diguzuen petr olioaren prezioa ezarri egiten diguzue, zioten, baita jadanik egonkortasuna garantizaturik ez duen monetan ordaindu ere. Guk ez ditugu urtero %20an depreziatzen diren dolarrak nahi”. Erosten zaien petrolioaren prezioa berek ezarri nahi duten “gaizto” hauek zeuzkaten aurrean mendebaldar herrialdeek.

Zer besterik egiten dugu guk Hirugarren Munduko herrialdeekin? Geure miopiak eta geure eurozentrismoak galerazten digu onartzea geu garela, herrialde industrialduak, Hirugarren Munduari horren prezio baxu lotsagarriak ezartzen dizkiegunak beren kobeari, beren eztainuari, beren kautxuari, beren kafeari, beren kakaoari. Adibiderik berrienetako bat, drogaren arazoari loturik, Kolonbiarena da, kafe-produkt-ore handiarena. Nazioarteko akordio bat burutu zen nolabait kafearen kotizazioa eror ez zedin. 1989ko uztailean iraungitzen zen aipatu akordioa. Washingtonek ez du ezertxo ere egin akordioa berritzeko. Areago, boikotatu egin du. Helburua argi zegoen: zorrez itota dauden herrialde pobreek masiboki produzitzen duten generoa merkeago ordaintzea. Kolonbiako kafe-produktoreek 750 milioi dolar galdu dute. Honezaz aparte, George Bushen Kolonbiako gobernuari 65 milioi dolarreko kontzesioa egiten zion defentsarako eta koka-trafikanteen aurkako burrukarako amerikar materialez horni zedin.

Gure mundu honetan, aberats eta pobreen arteko diferentzia arriskuz ari da areagotzen. Herrialde pobreek beren aberastasun bakarrak —beren lehengaiak— ezin dituzte kontrolatu herrialde aberats industrialduen erruz eta ezin

dituzte beren artean bloke eginez saldu, dituzten gobernuen erruz. Gure mundu honetan, egunero 35.000 haur hiltzen dira goseak eta gabezia, eta hein handi batean, zor digutena ordaintzea eskatzen diegulako da.

Bakea eta nazioarteko ordenua mehatxatzen duena Saddam Hussein baino areago da nazioarteko harremanetan eta nazioarteko merkataritzan justiziaren logikarik eza. Bakea justiziaren egitekoa da.

Euskaratzailea:

JON URRUJULEGI

BI MUNDUEN ARTEKO GERRA

ANTTON PEREZ DE CALLEJA

Golkoko gerrak, giza portaeren aztertzaileentzat ariketa ona izana izan behar du, batez ere historiaren joana zibilizazio desberdinen arteko talka gisa ikusten dutenentzat, guztiak galeran irteten diren baina aldi berean gutziek zerbait ikasten duten prozesu legez alegia. Kultura, trukea eta mestizaketa da edota ez da ezer.

Mundu bakar batean bizi garela eta gure portaerak elkar-tasun eta elkarmenpekotasun-printzipio batzuk jadanik be-reganatuak behar zituzkeela erizten dutenen teoria gozoa, mila zatitan txikitu ez bada ere, oraingoz eta gutxienez ere belaunaldi batean bederen, gerorako utzia izan beharko luke. Ezen, enfrontamendu honetatik erraz jasotzen bait da berori gezurtatzen duen zenbait ziurtapen, ziurtapen lotsagabe samarra agian, baina hala ere, sendo askoak.

Lehenengoa noski, ez garela mundu bakar batean bizi, zenbaitzuetan baizik, eta oraindik ere, mundu horiek elkarren artean ez dutela zerikusi handirik eta helburu oso desberdinen atzetik dabiltzala.

Mendebaldeak, mundu arabiarraren zati bat zeharo zaldutu du, erantzunezinezko teknologi nagusitasuna argiro erakutsiz. Teknologia hori izan da, hain zuzen ere, beti mendebaldeko munduaren erreminta. XVI mendean, Mendebaldeak *terra incognita* inbaditu zuenean, bere itsasoko nagusitasuna —itsas arkitekturaren eta nabigazio-teknikan egindako aurrerapenak—, nagusitasun militarra —zalditeria eta artilleria erabiltzea— eta bere antolamendu ekonomikoa —Indietako Konpainiak— izan ziren beste kontinenteez jabetu eta gero mendeetan zehar kontrolatzeko gaitasuna eman ziotenak. Nagusitasun materiala, noski, eta ez morala, nahiz eta guk beti bata bestearekin nahastu izan.

Mende honetako mendebaldearen atzerabiltzea —kolonien galera— ustiapen-mundu baten amaiera legez interpretatua izan behar du, baina ez ustiapenaren beraren amaiera gisa, hau orain erosoago egiten bait da nazioarteko merkataritzaren bitartez. Era berean, ez da halaber teknologi nagusitasun, beraz nagusitasun militar erantzunezin baten amaieraren hasiera ere.

Mundu anizkoi batean bizi gara eta beronek bere elementuen artean, ustiapen eta menpekotasun-erlazio desberdinak mantentzen ditu. Batzuek badakite eta badaukate eta besteek ez dakite eta kontrolatuak dira. Aplikatu hau teknologi edo salgai-trukeari edota Estatuaren arteko harremanei. Berdin da. Herrialde batzuek beste batzuen eskutan daude. Hirugarren Munduaren independentzia politikoak ez du ezer askorik esan nahi eta inolaz ere ez du bere menpekotasun ekonomikoaren bukaerarik adierazten.

Bi munduen artean dagoen sakanak, berriki dramatikoki garbi ikusi ahal izan dugun legez, lehen bezain handia izaten jarraitzen du. Teknologia gainera, eskuratzeko edo kopiatzeko ere zoli eta zailago bihurtu da. Orain, ezagutza purua baino ez da, prozesatu, metatu eta igortzen den informazioa.

Bere baliabideen zati handi bat mendebaldeko ar mak erosten erabili zuen Irak, ez da gai izan beroriek zuzen eta zorrotz erabiltzeko, ezen armek berek ere, ezagutzaren azpiegitura, beren kultura eskatzen bait dute. Hirugarren Munduko hezkuntz sistemek, ezin dezakete teknologia hori sortzen den abiaduran irentsi, ezen hain tradizional eta usuariozkoak diren gizarte horiek, horretarako prestatzen ez dituen bizi-moduarekiko zordun bait dira. Beren ekonomia ere ez da garatu, zeren hazkuntza ekonomikoa, funtsean, ikasketa eta irenste-kontua bait da eta ez, lehen pentsatzen zen bezala, kapital-metatze arazoa.

Bigarren ziurtapena, gatazkaren izaeratik ondorioztatua da. Irakek, berarentzat ohartu gabeko moduz ziur aski, mendebaldeko hirukietako bat ukitu zuen: energi hori nikuntza seguru eta merkea. Mendebaldeak baditu morrontza batzuk. Arlo honetan ez da gai izan oraindik bederen bere erantzun autonomo bat emateko eta horrek hondagarri bilakatzen du. Baina noski, bere energi iturriak eta beste edozein baliabide estrategiko ere hortz eta haginez defendatzeko prest dago. Zentzu honetan, ez dut uste Estatu Batuek, Kuwait inbadi-tzarekin benetako mehatxurik zegokeenik pentsatuko zutenik; munduak funtzionatu egin du sei hilabetetan zehar Irak eta Kuwaiteko petroliorik gabe eta bere prezioa egonkor mantendu da eta oso baxu mantendu ere. Horrek zera esan nahi du, badaudela gordailu alternatiboak (Arabia Saudi, Mexiko, etab.). Hala ere, petrolio-akaparatzeko honek, mehatxu politikoa zekarren, hots, Irak inguru hartako potentzia nagusi bilakatzea. Eta hori gertatzen uzteko ez zegoen prest.

Hirugarren ziurtapena berriz agenteari dagokio. Ez da noski Mendebalde osoa izan —eta are gutxiago Europa, eman duen ezintasun-lekzioarekin—, han ihardun duena, Estatu Batuak baizik.

Sobietarren lurjotzeak, mugitzeko gaitasuna —logistikoa eta teknologikoa— duen munduko herrialde bakar bihurturazi ditu Estatu Batuak eta gainera, inguruabar horietarako egokiak diren kanpo-politika eta armada dituen delako erakutsi.

Bitxia dena zera da, guzti hori bat etorri dela bere ekonomiaren unerik baxuenetakoarekin, aurrekontuko defizita eta kanpo-zorra ezin kontrolatu dituen unearekin alegia. Munduko herrialderik zorpetuena da, bere beherakada ekonomiko —industrialak bederen bai— jada hasia du. Bere ahalmenen gaintetik bizi izaten ohitutako herrialdea da.

Inguruabar hauetan eta garaipenaren distira gorabehera, Golkoan izan duen ihardunak, aurreranzko ihesaldia gehiago dirudi, bere armada ordainketa-balantzaren lerro bihurtzeko saioa baino ez alegia; berez, gerra 30.000 milioi dolar kosta zaio eta jadanik 55.000 milioi kobratuak ditu.

Bere gainbeherada ekonomikoa bere buruzagitzarako ahalmenarekin konpentsatzeko modu bat baino ez da izan, edota gainbeherada horrek besteak bezalako herrialde bilaka eraz lezan ekiditekoa, Mendebaldeko beste bat gehiago izatea alegia. Japoniak eta Alemaniak, ekonomia garaitzaileek, beren menpekotasuna aitortu egin behar izan dute eta zintzo asko ordaindu ere bai. Estatu Batuak, berriro ere, uhinaren gailurrean daude, baina beren ekonomiak eskuak bete lan emango die.

Edonola ere, garaipen bat bera ere, galera bat bezain zail izan liteke irensten, edota beharbada zailago. Garaipen batek, sentikera batzuk sortzen ditu: botere erasoezin, adimen-gehiagotasun, pentsakera eta arrazoikera batzuekiko konfidantza, balore-sistema batengan fedea. Eta ziurrenik, horretatik ezertxo ere ez da justifikatuta egongo ez eta baliakorki oinarrituta ere.

Galtzen dutenek ikasi egiten dute eta garaitzen dutenek ez dute ezer ikasten, ez eta beren lehenaldia edo orainaldia kritikoki berraztertzen ere. Eta arrazoi asko samar dago fidakorrak eta baikorrak ez izateko.

Mendebaldeak, zientzi *corpus* bat eraiki eta bere ekonomia ikerkuntzan eta ezagutzan oinarrituta garatzen jakin duenak, bere adimen-gaitasunak eta pertsona-ekimenak hedatzeko sistema politiko egokia —demokrazia— sortu duenak, orain helburu arrunten zerbitzuan darabil ahalmen ho-

ri: kontsumo-gizartearen —errealitatearen mugekin joka ari dena— eta *statu quo*a mantentzeko baino zerbitzen ez duen botere militarren zerbitzuan alegia.

Garapen ekonomiko autonomoari ekiteko inolako ahalbiderik ez duten ia Afrika osoaren, Europako Ekialdearen, Hegoamerikako zati handiaren eta munduko beste zati batzuen porrota ikusten duten batzuek, a zer nolako hats-lasatzea sentituko duten, herrialde burujabe eta behar bezala deskolonizatuak direla egiaztatzean. Zernolako arazoak lituzkeen orain Europak, adibidez, deskolonizazioa bere garaian burutu izan ez balu. Irtenbide perfektua hauxe: abantaila guztiak (beren lehengaietarako irispidea) batere desabantailarik (gizon zuriaren karga) gabe.

Guzti honek, behin eta berrizko enfrentamenduen eskenategira garamatza, behartsuen (beltzaran eta baxuak gehienbat) eta aberatsen (horail eta altuak gehienbat) artean geroz eta gehiago zatitutako mundu batean. Inmigratzaile guztiak inperioaren mugetan arrastotan mantentzea bakar-bakarrik ere —orain Ekialdekoak ere bai— nahikoa arazo izan behar du. Arrazakeria, ezinbestean ugalduko da.

Kapitalismoaren gordailu den armada, orain jada seguruak izateari utzi dioten gure mugetatik kanpo dago. Kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko enfrentamenduak zentzua izateari utzi eta sindikatuak sistemaren zati izatera pasa zirenez geroztik, sistema horrek kanpoko proletalgoa ustiatzen dihardu.

Hirugarren munduko krisi ekonomikoak, gero eta bortitzaigoak izango dira eta berek oinarrizko hornikuntzak— elikadura eta osasuna— ziurtatzeko izango duten ezgaitasuna gero eta nabarmenagoa. Hirugarren Mundua, herio-segada hirukotzean sartuta dago: superpopulazioa, hezkuntz gabezia eta lehengaien merkatuen gainbeherada. Gainera, bloke ekonomikoak edo merkatu komunak sortzeko ez dira gai izan, behar dituzten ekipo-ondasunak, teknologia edota kontsumo-gaiak saltzen dizkietenen aintza handiagorako.

Mendebalderako bidea ere ez zaie arr osa-krabelinezko ohatze gertatuko. Estatu Batuen krisiarekin, nazioarteko

ordena ekonomiko osoa jartzen da zalantzan: dolarra gordailu--moneta bezala, Hegoaldearen kanpo-zorra, merkatal babestailletza (GATT/AMBA Oren krisia; Arantzel eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra-rena), Europaren politika-sorkuntzaren geraldia, etabar. Beti bezala, aurreratutako Iparraldeak, bere burua razionalki antolatzeko baino atzeratutako Hegoaldea astintzeko gaitasun handiagoa erakusten du. Bere mundua bera ere, konplexu eta eraldagaitz bihurtu zaio. Gainera, badaki mugarik gabe iheska ezin daitekeela ibil eta egunen batean ingurugiroari, energiari, hirien hondamenari, gizartearen herenaren —behartsuen— bazterketari aurre egin beharko diela. Bere buruaren baitan ixteko joera ere, inoiz baino handiagoa izango da. Hegoaldeak ez du itxaron behar *zibilizatu* deitu munduaren aldetiko inolako irtenbiderik.

Mundua geroz eta txikiago bilakatuko da, distantziak geroz eta laburrago, baina bi kulturetako gizakiak —orain ez dago behartsu eta aberatsik besterik— zailtasun berberak dituzte komunikatzeko, elkar aditzeko, elkarrekin lan egiteko eta aberastasuna nahiz ezagutza administratzeko. Bestela esanda, beti bezalaxe gaudela alegia.

Euskaratzailea:

ANDONI SARRIEGI

NAZIOARTEKO ORDENU BERRIA

Golkoko gerraren ondorena

ALFONSO DUBOIS

Golkoko gerra legitimatzeko harrotu diren argumentu guztietatik, batek bakarrik iraun du zutik, gerra-interbentzioaren funts eta zimentarria izan dena: Irakek hautsitako nazioarteko ordenua berrezartzeko Nazio Batuen Segurtasun-Kontseiluaren onespenez emandako legetasuna. Eskualdean su-etena nagusitu zenean, nazioarteko ordenua aipatzen da potentzia nagusien presentzia militar eta politikoari Erdi Ekialdean eusteko Estatu Batuen eta beronen aliatuen ekintzen justifikagarri. Baina, nazioarteko zein ordenuaz dihardute? Golkoko gerran gertatuak berriro hausnartzea komenigarria litzateke Iparraldeak or denu berriaz ulertzen duenaz jabetzeko.

Arras gutxitan aurkitu da dramatismo larriagoz arriskuan nazioarteko elkarbizitza, Irakek Kuwait bereganatu aurreko goerara itzuli aurrean bezala. Beharrezkoa zen gerra

hautsitako ordenua berreskuratzeko. Herriaren eritzia, ordea, txantaiatz bortxatua izan da aukera bakartzat gerra aurkeztu zaiolako. Ordenua eta bakea arriskutan izaki, gerra gaitzerdi. Azpimarratu beharra dago nola saiatu den Mendebaldeko gizartearen aurrean interbentzioa legitimatzen. Hasiera batean herabekor aineratu ziren demokrazia eta libertatea, berehalaxe gorde egin behar izan ziren, zinismo gehitxokoa bait zen, kontutan izaki zeintzuk erregimenak ziren onuradun gerta beharrekoak. Bat bera ere ez zen demokrazia eta libertatearen maila minimora iristen.

Nazioarteko ordenuaren defentsaz baliatzeak ongi bete zuen bere *rola*. Areago lehen aldia izanik —eta hau nabarmentki harrotzen zen— erakunde supranazional batek indarrez ezartzen zuela bere erabakiak inposatzea. Nazioarteko elkarbizitzaren historian garrantzizko urrats kontsideratzen zen Nazio Batuen babesean gauzaturiko interbentzioaren aipatu legetasuna. Arriskuan aurkitzen ziren ordenua eta bakeak bazuten, azkenean, defentsa armatu plurala. Mendebaldar mentalitatearentzat zinez zuen pisua honelako argumentazioak eta, batez ere, konbikzioa txertatzeko ahalmena.

Bestelako ikuspuntuetatik aztertutik, ordea, ez lirudike horren bikaina eta askok nahi baino ahulago gerta bide da. Indarraz baliatze-akor dioaren berrikuntza lege zaharra aplikatzearen forma berri hutsa besterik ez zen izan. Ordenua ezarriko du, baina gauzak lehenean jarraitzeko; bestela esan, ordenua garantizatuko du baina ez justizia. Gainera, ordenu zahar hori galtzear zegoen erabat eta munduko errealitatearen eskaera berriei aurre ezin egitea izan zen, hain zuzen ere, gatazkaren kausa bat. Ordenua ezarri zen, bai, baina ez beharrezko hura, momentuko abagadune historikoak galdatzen zuena.

Ekialde-Mendebaldearen ardatzeko blokeen arteko tentsioa urtutzeak esperantzaren leihoa ireki zuen. Iritsia ziru-dien bi superpotentzien interes geostrategikoei makurturik zeuden eta garapenean aurkitzen ziren herrialdeen arazo haiek gainditzeko esfortzuen ordua. Beti segurtasunaren arrazoiak nagusitzen zitzaion inolako beste edozein kontsideraziori eta, jakina, garapenaren kausa garai hoberako uzten

zen. Bigarren Mundu-Gerraren ondoriozko nazioarteko ordenu inposatua ez zen Hegoaldeko herrialdeentzat oso egoki eta lagungarria gertatu. Babes nuklearrak europar eszenategitik gerra urrundu bazuen ere, hots, Iparraldetik, beste lurralde batzuetara esportatu zuen. Bakea ez zen Hegoaldean loratu. 1945az gero, garrantzizko hogeitahamabost gatazkatik gora mamitu ziren Hirugarren Munduan eta hogeit mila milioi hildakoen emaitzak Bigarren Gerrako biktimen kopurua gainditu egiten du. Aipatu gatazka horiek —asko eta asko izaera erre-gionalekoak— bi potentzia lehiakideek sustatuak garatu ziren ia kasu guztietan, beren eskemaren baitan arriskutan ikusten bait zuten bakoitzaren hegemonia. Azken finean, hildako, suntsipen, herra eta segurtasun ezaren kostua askoz ere handiagoa gertatu zen, prezeski blokeen interbentzioa tarteko.

Gerra Hotzaren hamarkadak Hegoaldearentzat geroz eta etsipen pisuago bilakatu ziren. Nazioarteko kontzertuan sartzea beren ekonomien garapena segurtatzeko baldintzatan emango zenaren ustea ustel atera zitzairen. NBEk berak onartzen zuen hiru hamarkadatan zehar garapenaren alde hezurmamituriko kanpainen porrota. Mundu-Bankuak berak ere 1990eko Txostena “Munduko Pobrezia” titulu adierazkorraz eman zuen argitara. Buruz anormala ez zen edonork soma zezakeen han zerbaitek huts egiten zuela, aterabidea urgenteki galdatuz. Ordenu zaharrak agerian zituen bere ahuleziak. Bataren bestearekiko beharra geroz eta nabarmenagoa zen munduan, arazoak ikuspegi berriaz konpondu beharra zegoen. Teorian behintzat, Ekialde-Mendebaldearen arteko Gerra Hotzaren amaierak gai hauek planteatzeko baldintzak eskaintzen zituen. Hala ere, iritsia ote zen Hegoaldearen garapenaren parada?

Iparraldean batek baino gehiagok ohartarazi zuen baikorkeriak bazter uzteko. Batzuentzat, mendebaldar ereduaren garaipena zen azpimarratzekoa, historiari amaiera jartzen zion mendebaldearena; hauxe zioen Fukuyamak, Estatu Batuetako Estatu-Departamenduko analistak. Horra gain emanik istilu ideologiko ulertezinei, errealitateak agintzen zuen eta espantsioari ekin eta garailearen legea aplikatzeari heldu besterik ez zen bidezkoa. Beste batzuentzat, jalgitzen

ari ziren potentzia berrien artikulazioa nola burutu zen beren kezka larria, hots, Europa eta Japoniaren artikulazioa lider garailea den Estatu Batuekin. Ez zuen inork ukatzen garai-leen poza, mundua lehiakide gogaikarririk gabe administra-tzeko aukera ematen zuen halako gozamen antxa.

Hauxe zen, eta berauxe da gaur ere, kezka nagusia. He-goaldean atseginez ikusten zuten Eki-Europan mamituriko aldakuntza asko, segidan Iparralde-Hegoaldearen arteko erlazioa nagusituko zelakoan eta, ondorioz, hainbat aldiz proposaturiko gaiak behingoz agendaratzea lortuko zutelakoan. Baina, Iparraldearen jarrera kontserbadore eta higigaitza susmo gaiztoa areagotzen ari zen Hegoaldean. Ez zen inondik ere ageri beren errebindikazioak aintzakotzat hartuko zituen ordenu berria. Desafio berrien larrialdiar en aurrean, oraindik ere baztertuago geratzen ziren. Eur opa hain zegoen harremanetan Ekialdeari lotua, ezen hasieran Hegoaldeari esleituak zeuden garrantzizko diru-emariak, berriro Ekialdeari adjudikatuak izan bait ziren. Helmut Schmidt kantziler ohiaren hitzetan, “Ekialdeko eur oparrei esklabutzatik irteten laguntzeak behar du lehentasuna; zer aurreragoko lanik orain, berekiko solidario bagara, ber en progresoari laguntza ofizialak eskuratzea baino”. Askoz esklabutuago zegoen Hegoaldearen premiek ez zuten presarik, ez zutelako Iparraldearen segurtasuna zalantzan jartzen. Edota baiezkotan, atzerritar langileen migrazioen bidez agian, erne eta atzarri jarria zegoen Iparraldea.

Horra egoera. Xumeago esateko, Hegoaldeko lanaren aurrean Iparraldeko kapitalaren uholdeak injustizia sortua zuen eta hortik asaldapenera igarotzea denboraren arazoa besterik ez zitekeen. Hegoaldearentzat nazioarteko ordenu berria eraikitzeak beste dimentsio bat zuen, aukera gutxi ematen zituena gainera. Kooperazio-estrategian oinarritu behar zen, elkarkidetzarako era berriak aurkitu asmoz, irabazi denek eta inork galduko ez zuen moldearen barruan; edota segurtasun-estrategiatik abiaturik, jadanik tinko dauden botere-guneei eusteko ardura nagusian funtsatu beharko zen.

Iparraldeak Golkoko gatazkari eman dion erantzunean irakurri behar da estrategia menderatzailearen lehen aztarna

adierazkorra. Parte hartzen duten elementu ugarien xehetasunak kontutan hartzeke, Husseinen errejimeneren tirania eta injustizia baloraturik, erantzun horren ezaugarriak azpimarratzeak badu axolarik. Soluziobidetzat negoziazioa ukatzea, egoera Iparraldeko hiritarren bizi-mailaren mehatxutzat aurkeztea, gogoeta baino areago izua nagusi eraztea, gure soldaduen heriotza ekiditeko bakarrik soldadu etsaien masakreak justifikatzea, etabar, gerraren zer-nolakoez areago doaz eta baita Hussein bezalako despota baten ankerkeriaz baino ere. Argi baino argiago erakusten dute hautatu den bidea eta aipuan dagoen nazioarteko ordenuaren kontzeptua.

Golkoko krisiak beste hainbat krisi izkutatzen ditu, nahiz eta azalean arabiar emirrei batzuen barneko gorabehera jakin batzuk aldatzea bakarrik dela ikustarazi nahi izan edota palestinar arazoa zertxobait arintzea. Gauza asko aldatu dira denak lehenean jarrai dezan eta berriro aurreko ordenura itzultzea Iparraldeko herrialde aberatsen interes berezien defentsan bakarrik izan daiteke, edonolako zirkunstantziaren aurrean beren hazkunde-pr oiektu propioan erabat itsuturik.

Benetako arazoa, munduko herrien gehiengoaren aurrean aipatu proiektua defenditzeko legitimitate eza da. Ezinezkoa da aldi berean demokrazia eta inperio izatea; lehena hautatzen bada, Iparralde-Hegoaldearen arteko erlazioa kooperaziozkoa izango da, baina, aldiz, bigarrrena hautatzean, erlazioa dominazioak eta koertzioak ezaugarrituko dute. Ez dago legitimitaterik -ezinezkoa da-Hegoaldeko justiziaren eta sobr ebizitzearen heiagorari entzungor egin eta interesen akumulazioa inposatzeko. Golkoak garraski nabarmendu du ironiaz auzo globala deitzen zaion planeta honek gaur behar lituzkeen hitz biribil eta proiektu bikainik ez duen Iparraldearen anbizioa. Hegemonia mantendu ahal izateko indarra besterik ez zaio geratzen eta, prezeski, badaki horretaz bortizki baliatzen.

Euskaratzailea:

GERRA TELEBISATUA

EDORTA ARANA

Estatu espainiarrean eginiko inkesta batek erakusten duenez, Golko Pertsiarreko gerrari buruzko informazioa herritarren %87,4ari telebistaren bitartez heldu zaio.¹ Al-di berean, mundu-mailan telebista kanale desberdinek har-tzaile-kopuruaren gorakada handia ezagutu dute (Estatu Batuetako telebistetan, ikusentzule gehien lortu duen es-pektakulua izan da).²

Telebistaren kontsumo datuak eta gerra garaian duen ga-rrantzi sozialari buruzko eztabaida areagotu egin da zentsu-ra gogorra, teknologia berrien erabileraz eta pr opaganda tresna izatearen salaketaz batera.

Izan ere, “...eta lehen aldikoz, zuzenean erretransmitituriko gerra superproduktzio ikaragarriar en”³ lekuko izan gara telebistaren bitartez.

Bigarren Mundu-Gerran, agintari naziak bezala aliatuek, oparotasunez erabili zituzten informazioa biztanlearen esku jartzeko garai hartan zeuden tresnak, alegia, irratia eta zinetan pantailaratzen ziren dokumentalak.⁴

Ondorengoetan, Vietnam esaterako, telebista izan zen informabide nagusia eta horren jakitun ziren Ipar Amerikako agintaritza eta telebista enpresatzarrak (CBS, ABC, NBC...). Hura izan zen telebistaturiko lehen gerra eta, Estatu Batuetako etxeetara diferituan emana.

Oraingo hau, Golko Pertsiarreko Gerran, aurrerakada teknikoen eraginez, bapatekotasuna gehitu behar izan zaio telebistaren eskaintzari: urtarrilaren 16-17a bitarteko gauean, Kuwait eta Iraken buruturiko lehen abioi-bonbaketak entzun eta ikusi ahal izan ziren sinkronikoki mundu zabalean.

Baina, gauez grabatzeko ahalmena duten telekamara infragorridunak, mikrouhinez bidalitako TB-seinaleak ala satelitearen erabilera oparoak izan arren telebidezko gerra honetan ikusitako berrikuntza teknologikoak, berriro ere plazaratu den debatea gerra eta informabideak bezain zaharra da: gerra garaian egiten den telebistaren erabilera.

“Gerra, gauza garrantzitsuegia da huts-hutsean militarren esku uzteko. Baina informazioak pisu handiko ondorioak eduki ditzakeenez —bereziki gerra sasoi—, ezin da kazetarien erizpideen esku laga”⁵ idatzi du komentarista politiko batek.

Ez da gaurkoa, informabide desberdinek jasaten duten kontrol politiko eta menpekotasun legala, teknologikoa eta ekonomikoa, baina krisialditan, gerrarena adibide prototipikoa izanik, baldintza hauek nabarmentzen dira lotsarik gabe.

Vietnamgo gerran, Etxe Zuriko buruek ez zuten jakin izan gerratik zetozen berriak kontrolatzen eta Vietcong-eko soldaduen erresistentziak beste ahuldu zuten Estatu Batuetako biztanlegoaren barruan gerraren kontra sortu eta hedatu zen eritzi publikoa.⁶

Esperientzia garrantz hura errepika ez zedin, Granada, Panama eta britainarrek antolaturiko Malvinetako gerratan, informabideak, eta espreski telebista, zaindu beharra zeukaten.⁷

Esana dut lehentxeago, telebista estatu zein botere ekonomikoen menpe jaio eta garaturiko tresna dela. Golko Pertsiarreko gerraren kasuan gainera eritzi publikoaren osaketa eta kontrola mantentzeko erabilia izan da izkutuko taktikarik gabe.⁸

Inoiz ez bezala, militarren aginduz, Irakek prentsa-korrespondentsalak egotzi zituen bere lurraldetik (CNNkoak salbu), amerikarrekin bateraturiko nazioarteko frontekideek, TB-irudi zein informazioak orraztu eta zentsuratu zituzten (“Cleared by U.S. military”, “U.S. pool tape” edo “Cleared by military censors” bezalako gaininprimaketak ospetsu bilakatu dira), kazetari *pool* bereziak antolatu zituzten fronteko berriak ematerakoan monopolio gisa arituz, eta guztia delako *Informazio Bulego Bateratuaren* kontrolpean.

Zentsura, sozialki arbuaiatua izan ez zedin, *segurtasun-arrazoia* aipatu izan dira,⁹ baina egiazko arrazoia guztiz bestelakoa zen: golkoan zeuden ejerzitokide eta hirugarren munduan eta mendebaldeko hainbat herrialdetan sorturiko gerraren aurkako eritzi publikoaren zabalkundea eragoztearen helburu.¹⁰ Baina zentsura izanik kontrol moetarik gordin eta zuzenena, Golkoko gerrak azaleratu dituen beste batzuk ere badira: nazioarteko informazio-iturriak herrialde *aurreratu* gutxi batzuen esku egotea (teletipo zein ikusentzuteko informazio-zerbitzuak eskaintzen dituzten agentziarik indartsuenak amerikar eta britainarrak dira) eta teknologia berrien erabilkortasuna mugatua egotea (tekniko, legal eta ekonomikoki) eta, okerragoa dena, kazetariak duten autonomia eza eta zentsuraren aurka erakutsi duten indar falta. Gainera, kontutan hartzeko modukoa da, kazetariak gai arabigo-islamikoaz (kultura, erlijio, jazoera, jarr era bitala, historia...) duten jakituria eskasa. Ezjakintasun horren ondorioz *espezialisten* esku utzi da notizien kontestualizazio eta balorazioa: militarrek, nazioarteko harremanen ikerlari mendebaldetarrak, politikoak...

Baina are eta larriagoa da ikustea noraino kazetariak barneratu dituzten gerran zeuden blokeetatik baten tesiak: tele-tipo eta formato guztietako notiziak konfrontazio eta konfirmazioerik gabe argitaratu dira, onartua izan da hizkuntza bikoitza eta kontrajarria Irak ala “aliatuei” buruzko berriak ematerakoan,¹¹ hizkera militarista esku zabalez erabilia izan da, e.a.

Inoiz ez bezala, gerra honetan “beraiek gura dutena kontatzen ari gara”.¹² Eta interpretazioz ez baina datuz josi dituzte programazio ordu luzeak: korrespontsalen kr onikak Jerusalem, Bagdad, Tel Aviv, Riad, El Cairo, Amman eta abarretatik jasoak, goi-mailako teknologia duen tresneria militarri buruzko informazio, etabar, Jerry Mander -ek “Telebista ezeztatzeko lau arrazoi”¹³ izeneko liburuan esaten duen bezala, ikusentzuteko informazio ugariegiak, ezer baino, zorabioa sortzen du, errealitate eta fikzioa ber eizteko ahalmena galerez.

Golko Pertsiarreko kasuan, argi gelditu da informabideak —eta hauen artean jaun eta jabe den telebistak— zein neurritaraino erabili izan diren *giza narkotizatzaile* modura. Bapateko informazioak, errealitatea bizi izatearen sentsazioa sortu arren, ezer egiteko kapazitatea ezeztatzen duenez frustrazioa agertaraziz. Etxeko aparailuetan, bideo-jokoen modura, *target*-ak agertzen ziren, misilak jaurti eta *neutralizatuak* izaten ziren zehaztasun milimetrikoz; benetazkoak ziruditen irudiak baina ez ziren gerraren beste aldeak erakusten:¹⁴ ez zegoen zauritutakorik, bildur-garraiak ez ziren entzuten, bonbaketek sorturiko ondamendiak... ez ziren erakusten, ez zuten ikuslearengan ia err eakziorik sortzen. Egongelatan eserita zeudenei, eskaintzen zitzaizkien gertutasuna, teknologikoa zenez gero, ez zuen jendearengan parte hartzeko desiorik sortzen (ordezkotasuna), errealitatea kontrolaturik agertzen zen, ordenagailuz bideraturik, etorkizuna erabakita zetorren (fatuak idatzitakoa besterik ez zen betetzen ari). Goi-teknologiazko gerra izan dela saldu nahi izan digutenak, telebistan azaldu diren Bush —eta bere jeneralak— eta Sadam Hussein- ez aparte, kazetariak izan dira. Kazetariak, mezulari baino notiziaren iturburu gisa

agertu dira, bonbaketak, ur eta janari eskazia sofritzen zuten bakarrak beraiek ziruditelarik. Espektakulu negargarriaren aurrean, satelitea *goiko jaun* bilakaturik, kazetaria, kontrolatzen ez duen katea bateko elementua izanik, keinu-egilea besterik ez da izan.

- ¹ IPC-Research-ek 1991ko urtarrilaren amaieran eta otsailaren 20a bitartean eginiko inkestaren arabera, estatu espainiarreko biztanle-goaren %48,4ak prentsa idatziaren bitartez jaso du gerrari buruzko informazioa, %51,7ak irratia bitartez eta aipaturiko %87,4ak telebista izan du informabide nagusia. Kontutan izan, hartzailegoak sarri komunikabide bat baino gehiago erabiltzen duela, hori da emaniko datuak gehituz gero, %100 baino gehiago zenbatzearen arrazoia.
- ² Fermoselle, A.F.: “La guerra del ‘zapping’”, *El Mundo*, 1991/1/23
- ³ P.M.: “La guerra servida al mundo”, *El Independiente*, 1991/1/20
- ⁴ Propaganda politikoan erabiltzen diren informabideak eta honen ondorioak eritzi publikoan, Miquel de Moragas-en ardurapean argitaraturiko artikulu-bilduman zehazten da. Moragas, Miquel de: “Sociología de la comunicación de masas” (III), Gustavo Gili, Barcelona, 1985.
- ⁵ “Vamos a contar mentiras”, *Diario 16*, 1991/2/12.
- ⁶ “Pentagonoak, oraindik ere, pentsatzen du Vietnameko gerrari buruzko informazioaren ondorioak Estatu Batuetako eritzi publikoan oso kaltegarriak izan zirela. Eritzi honek balio izan zuen Granada eta Panamako kasuetan errestrikzioak ezartzeko...”, “El Pentágono y la otra cara de la guerra”, Montagut, A., *El País*, 1991/1/12

- 7 "Gerra elektronikoa aurreratuenak, inoiz baino gehiago orain, adiskide zahar baten laguntzaren beharrean dago: eritzi publikoaren babesa. Eta gaur egun, telejakituraren sasoian, babes hori edukitzea ala ez komunikabideen esku dago. Azken finean, gudaroste aliatuen morala neurri handi batean, beraien herrialdeetan ausnartzen den eritziaren arabera joan daiteke, are ta gehiago Hassanek mundu arabiarr eko lankidetasuna eskuratzeko zorian dabilen honetan, aliatuen batasuna hausteko mehatxua sortaraziz.", "La batalla por la opinión pública occidental", Idoiaga, J.V. eta Zallo, R., *Egin*, 1991/2/9
- 8 "Bizi dugun Krisialdian bereziki, informazioaren kontrola dutenek, are ta estuago mantentzen dituzte beraien kontr ol-mekanismoak. Baina ez da ahaztu behar kontrola eta "sekretu informatiboa" gaur egungo informazio-sistimaren elementu osatzailea dela, ohitura eta errutina periodistikoetan sartua eta egunerokotasunak ematen dion pisuaz errotua.", "Entre censuras y 'secretos informativos'", Txema Ramirez, *Egin*, 1991/2/17.
- 9 Frantziar Estatuko Ikusentzutekoen Kontseilu Gorenak, (CSA) bezala, beste herrialde "aliatuen" kazetariak konpromezu-kode estua err espetatu behar izan dute informazioak bidali ahal izateko.
- 10 Schwarzkopf, Estatu Batuetako generalak adierazi zuen arren "Irak engainatzeko baliatu ginen prentsak argitaratzen zituenaz", gero eta gehiago dira uste dutenak, zentsura gogorrari "happy end" eta justifikazio praktikoa ematea helburua zuela deklarazio horrek. Zaila da sinisten, erabaki militarretan Bagdad-eko militargo gor enak egunkariak irakurriko zituenik. Baina gainera, zentzurik ez du ekintza militarrek hasi baino orduak falta zirela, enbargoa bermatzen zuten barku eta dotazioak erakustea eta handik gutxira, "seguritate arrazoiak" zirela medio, oztopo guztiak jartzea.
- 11 Gaztelaniaz eman den hizkuntza bikoitz eta kontrajarriari buruzko azterketa interesgarria: "El doble lenguaje de la guerra", *El Mundo*, 1991/1/25 (?)
- 12 Madrilera telebista autonomikoaren Albistegi Zerbitzuetako zuzendaria den Eduardo Alonsok esana, "Las grandes cadenas americanas consiguen enviar sus imágenes del Golfo con sobornos", *El Mundo*, 1991/1/21.
- 13 Mander, J.: "Cuatro buenas razones para eliminar la televisión", Gedisa, Barcelona, 1981
- 14 Gerra hasi aurreko egunetan kazetari batek idatzi zuenez "Egia izaten da gerraren lehen biktimak": "¿Se podrá contar la guerra del Golfo?", *El Mundo*, 1991/1/12.

HAINBAT ABURU

PAULO IZTUETA

EUSKAL LITERATURAREN IRAKURKETA BEREZIA

LUIS MARI MUJIKAI

EUSKAL KULTURAREN IKUSPEGI ELBARRIA

KOLDO ZUAZO

LUIS MARI MUJIKAREN OBJEKTIBOTASUNA

EUSKAL LITERATURAREN IRAKURKETA BEREZIA

PAULO IZTUETA

Eskuetan dut *Jakin* azken zenbakia (61 zk., 1990), Euskal Kulturaren ikuspegi bibliografikoaz dihar duena. Gaiak espezialistek landuak dituzu: Koldo Zuazok, Euskalaritza; Jesus Maria Lasagabasterrek, Euskal Literaturaren azterketa; Patri Urkizuk, Antzertia eta Jon Bagüesek, Musika. Ohitura ohi dudanez, eman diot gainbegiratua. Eta, egia esan, ez naiz oso konforme geratu guzti-guztiarekin. Espero nuen eritzi kritikoek kalitateak asko irabaziko zuela, profesionarien ikerketa espezializatuari esker, Unibertsitateko Euskal Departamentuetan eskaintzen zaien trataerarekin. Eta uste dut, egiazki uste, urrats garrantzitsurik eman dela maila akademikoan eta, zenbait kasutan, kualitatiborik ere bai. Iruditzen zait, hala ere, oraindik *desiderandun* asko daudela betetzeko.

Esan nahi dudana adierazteko, adibide gisa, Jesus María Lasagabaster irakaslearen “Euskal Literaturaren azterketa 1960-1990” artikulua ekarriko dut. *Jakin*-ek enkargatu zion egitekoa ez zen batere erraza, gai hain zabala orrialde gutxitan errenditzea nornahirentzat bait da neke. Horregatik, artikulugileak sarreran abisatzen duen bezala, normala deritzot ezinbesteko hautaketak egin beharrari murriztasunaren amoretan. Baina hautaketaren emaitzak ikusita, esango nuke —eta nahikoa kezkaturik diot hau— eskaintzen duen azterketa kritikoa aski desorekatua dela. Zehatzago esanda: kasu batzuetan, ez-osoak eta, beste batzuetan, ez-bidezkoa.

- *Ez-osoak*, hasteko, nabarmentzen diren ausentziengatik. Euskal literaturaren historiari dagokionez, nahiz eta azterketa 1960-1990 epealdira mugatua egon, ez zen lekuz kanpo egongo Orixeren “Euskal Literatura-ren atze edo edesti laburra” (*Euskal Esnalea*, 1927) aipatzea, aipatu bederen, bera izan bait zen lehena klasikoen kultur ekarpena sistematizatzen. Koldo Mitxelena aintzindari bai, baina Orixe aintzindariago kronologiaren aldetik. Baita Jon Etxaideren *Amasei Seme Euskalerriko* (1958) ere, orduan hainbeste maite izan genuena eta orain ahaztuta daukaguna. Ibon Sarasolar en *Euskal Literaturaren Historia*-ren ondoan, ez zuten agian itsusi egingo ez Joan Mari Torrealdairen *Euskal idazleak, gaur-ek* (1977), ez Luis María Mujikaren *Historia de la literatura euskérica*-k (1979) eta ez Josu Landaren *Gerraondoko Poesiaren Historia*-k (1983), besterik ez bada, eritziak eritzi, zenbait autoreri buruzko literatur apreziazioak kontrastatzeko. Patri Urkizuren *Literatura eta kritika* saiakera (1970) ere, garai honetako literatur korrontek ezagutzeko lekuko aproposa, ez da agertzen.

- *Ez-zuzena*, bestalde, hartzen diren joera errotikoengatik. Eskubide osoa dauka Koldo Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* dela “oraingoz kalitatez onena” baieztatzeke. Baina ausardia handiegiztat daukat Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca*, bibliografi iturrietan eta testuen trataeran Mitxelenari ezer gutxi zordiona, materialen ekarpenengatik bakarrik doi-doi aipatu izana lerro miserable batean.

Baina badira ausentzia larriagoak. Azterketa monografikoak baztertu egin dituela esaten digu. Txomin Agirrerena eta Lauaxetarena sartzen badira, lehenak euskal nobelaren sorrera eta bigarrenak euskal poesigintzaren berrikuntza suposatzen duelako sartzen direla. Aukera honek ikergaiaren gehiegizko murriztapena dakarrela begi-bistakoa da, are nabarigoa artikuluaaren helburutzat “euskal literaturaren azterketarako hurbilpen bibliografiko bat ematea” ezartzen denean. Izan ere, bi autore horiei buruzko ikerketa--lanekin bakarrik geratzeari, gutxienik, jokabide eroso bezain *machivellikoa* deritzot, zeren literaturaren berrikuntzan Lauaxeta baino garrantzi txikiagoak ez diren beste autore batzuen inguruan egindako ikerketak kanpoan uzten bait dira. Nire ustez, arras bidegabeki.

Lehenik, Luis Maria Mujikaren lanek ez dute sarr erarik literatur ikerketen komunitatean. Alta, badu zer bait idatzirik. Euskal literaturaz, oro har: *Euskal Lirika Tradizionala* (1985), lau tomotan emana; “XVIII mendeko lirikaren alde literario zenbait” (ASJU, XVIII-2) eta “Kanpoko liriken hurbilketak euskal poesiaren neurrian” (RIEV, 1985) artikulua. Lizardi, Mirande eta Orixeri buruzko liburuetan nahiz artikuluetan oparotasunez eskainitako lan monografikoak ere hor daude: *Lizardi-ren lirika-bideak* (2 tomo, 1983), “Lizardi-ren poesian influentziak” (*Jakin*, 1982), *Mirande-ren poesigintza* (2 tomo, 1984), “Sinbolismoa eta eraginak” (*Orixere-ren aportazio literarioak*, 1990) eta “Baliabide literario batzuk Orixere-ren poetikan” (*Egan*, prentsan, 1990) artikulua.

Luis Maria Mujika ez da ausente bakarra. Joxe Azurmendik euskal literaturaren kritikaz egindako orrialdeak ere ahaztu dira. Euskaltzaindiaren *Orixere, Omenaldi* (1965) lan kolektiboaz geroztik, bera izan da orexarraren kultur eta literatur ekarpena aztertzen lehena *Zer dugu Orixereen kontra* eta *Zer dugu Orixereen alde* (1977) lanekin. Haren 25. urteurrenean, “Orixere-ren inguruko garai-giroaz” artikulua idatzi zuen (*Jakin*, 39 zk., 1986). Bera da, halaber, Salvatore Mitxelenaz gehien sakondu duena, lehenik, berari eskainitako zenbaki monografikoan (*Jakin sorta*, 2 zk., 1970) eta, gero, “Salvatore

Mitxelena bere lekurtzeko” (*Idazlan guztiak*, I-II, 1984) hitzaurreetan. Joseba Zulaikaren *Adanen poema amaigabea* (1975) liburuari egindako “Adan 1975: Azterketa saio bat” izeneko epilogo aski luzean (61 orrialdetakoan) errepaso ez batere desdeinagarria dator gerrateondoko euskal poesi-gintzaz. Guzti honetaz letratxo bat ere ez *Jakin*-eko artikulua osoan zehar.

Badirudi Iparraldekoak linboan bizi direla. Jean Haritschelhar-en *Le poète Souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXeme siècle* (1962) ekarpen akademikoaz gerotzik, ildo beretik ekin eta ekin ari zaigun Piarres Xarritonen ikerlanik ere ez duzu irakurriko. Baina Pierre Broussain (*Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*, 1985) eta Jean Etchepare (*Idazlanak*, 1985) eta beste hainbat idazle, nork atera ditu ahaztearen zoko ilunetik?

Bizkaiari ere apenas ematen zaio Iparraldeari baino tratua hobe. Mikel Zarate ez zaigu hain joan zaharra hain agudo ahaztua izan dadin. Eta haren eskolak segitzen du lanean Derio inguruan. Eta hangorik, Santi Onaindia salbu, inortxo ere ez. Euskal Herria, otoi, Gasteiz eta Donostia baino zerbait gehiago da!

Ahozko literaturaren esparruan, deskuidoak ez dira txikiagoak. Sail honetan, euskal literaturak berezkoenik bertsolaritza du, inolako zalantzarik gabe. Eta bertsolaritzaz bada zerbait eginik eta idatzirik. Hor dauzkagu Santi Onaindiaren *Gure bertsolariak* (1964) eta A. Zabalaren *Bosquejo de historia del bersolarismo* (1864). Berrikiagotan, Xabier Amuriza gaiaren arras barrutik mintzatu da *Bertsolaritza* liburuan, bereziki 1. tomoan (1981), eta “Bertsolariaren barne-prozesua” artikuluan (*Jakin*, 14/15, 1980). Zenbaki berean, Joxe Azurmendiren “Bertsolaritzaren estudiorako” artikuluan, sail honetan ikertzeke dauden zenbait alderdiri buruzko aztarnarik badator. Honetaz ere tutik ez. Joanito Dorronsoren *Bertsotan 1789-1936* (1981) eta *Bertsotan 1936-1980* (1988) bikotea, bibliografia orokorrean bederik, sartzen da. Gaitzerdi.

Eta segi nezakeen haren eta honen lan-zerr endatik tiraka. Ekarri ditudan adibideak aski direlakoan, ez noa areago luzatzera. Buruz aritu bait naiz, badakit aleunka lan aipagarri utzi ditudala kanpoan. Nire helburua adibide batzuk ematea besterik ez da izan, goazen bidetik joanda, likidazionismo merkean eror ez gaitezten. Daudenak beude bere lekuan, nire oneritzi guztia bait dute. Baina, ez dakit nik zer lan-zedarriketa dela eta, euskal literaturar en ikuspegi bibliografikoa neurritz kanpo murriztu eta desitxuratu gabe.

EUSKAL KULTURAREN IKUSPEGI ELBARRIA

LUIS MARI MUJICA

Eskutara iritsi berria zait *Jakin* aldizkariko azken alea (*Jakin*, 61 zk., 1990), «Euskal kultura. Ikuspegi bibliografikoa» gai monografikoaz. Aldizkariaren pretentsioa handia izan da hain epe luzeko bibliografia eta kulturaren ikuspegia objektiboki eman nahi zelako. Ondorioa, ordea, ez da hain objektiboa izan, tamalez, eginbeharra ere ez bait zen hain eroso. Kasu batzuetan, nabarmenki, partzialkerietan gelditu da, topiko batzuen inguruan ikuspegi murrizta eta alderakoia eskainiz.

Koldo Zuazok ekin dio filologia, hizkuntzalaritza, dialektologia, hiztegitintza eta hizkuntzaren soziolinguistikari. Sail zenbaitetan ahalegindu da objektiboa izaten, eta, dialektologian eta fonetikaren arloan, adibidez, nolabait lortu egin du. Ez, ordea, beste aunitzetan, ikuspegi murriztua eskaini di-

gulako. Adibidez, hiztegitzantz, apenas lerro bi eskaintzen dizkien X. Kintanaren eta nire hiztegiei, gure ustetan, euskara batuaren finkamenean beste edozein hiztegitz baino ondorio trinkoagoa izan dutelarik, besteen artean, gehienik, erabilienak izan direlako. Hiztegitzantz modernoaren auzitan kanpotiko prefijoek erabilpenak izugarritzko garrantzia izan du, ezen-eta euskara teknikoaren korapiloenetako bat hizkera erromanikoetako *in-*, *pre-*, *po-*, *auto-*, eta *re-* gisako aurrizkiei ordainak bilatzea izan da. Bada horretaz X. Amurizar en «Euskal aurrizkiak» lana (Euskara, 1974, 9-10 or.), eta nire *La prefijación, clave del euskera técnico y urbano* (Ed. Vascas) delakoa, aipurik gabe gelditu dena. Euskal bibliografia modernoak eta teknikoak asumitu egin du bide hori, gehienbat.

Bestalde, Auñamendi-ren *Diccionario Español Vasco*, zortzi tomotan hedatuak, ez du aipamenik, bere azpian Ignazio Goikoetxea bezalako euskalari iaioa dagoelarik.

Toponimiaren inguruan eginiko lanek ere ez dute sarrerarik arlo berezi gisa, gutxienez, hiztegitzantzaren inguruan. Aipatzen da, bai, *Onomasticon Vasconiae* delakoa sail berezi bezala, baina ez da zehazten askoz gehiago. Jose María Jimeno Jurioaren toponimiazko lanak, gutxienez, bost obra nagusitara hedatzen dira Nafarroan; berdin, Araban, Gonzalez de Salazar-enak, dagoeneko bost bat tomo eskaini dituelarik *Toponimia Alavesa*-tik; eta nire *Euskal toponimiazko materialeak* ere (Gipuzkoari soilik mugatuak, oraingoz 12 tomotan) ez dira sartu.

Gure ustez, Zuazo orri urriko hainbat artikuluxkaren aipuetan dabilen bitartean, horrelako hutsunetan erortzea konpreniezina deritzaigu.

Hiztegitzantzaren arloan *Diccionario etimológico vasco* delakoak badu bere esparrua, baina ez behar bezainbat mamitua, gure ustetan. Etimologiaren arloan esanekoak zehatzagoak behar lukete, hala nola, M. Agud-en «Elementos de cultura material en el País Vasco» (1980, tesia), non gure tresna-gailuen etimologiak aurkitzen bait dira; ez da deus esaten latinaren eta erromanikoaren eraginaz euskal lexikoan,

nik «Latina eta erromanikoaren eragina euskarari» (1982) tesiari tratatua, bertan milaka etimologia latin-erromaniko eskaintzen delarik, aparteko maileguen bilakaera fonetikoaz gain.

Aldizkarietan, bestalde, RIEV berrian eta Eusko Ikaskuntzako «Literatura eta Hizkuntza» sailean argitaratutako lanak kasik ignoratu egiten dira. Egia esan, Zuazoren egitekoa ez zen eroso eta konprenitzen dugu hutsune zenbait, bainan batzuk nabarmenegiak deritzaizkigu ikuspegi hain zabala eskaintzeko pretentsio aurrean.

Bestalde, Jesus Maria Lasagabasterrek egin digun 1960 eta 1990 urteen bitarteko azterketa bibliografikoa Zuazorena baino, oraindik, desobjektibo eta elbarriagoa da, ezen-eta Lasagabasterrek, itxuraz, «euskaraz» idatzi den lan kritiko literario gehiena ezezaguna du. Berarentzat kritika literarioa, kasik, bi autoretara mugatzen da, eta hori objektibitatea, biziki, erasotzea da. Narratibari dagokionez bere ikuspegia, beharbada, aski zintzoa da; ez, ordea, kritika literarioaren arlokoa. Adibidez, euskal poesia modernoaren ikuspegia J. Kortazarren *Laberintoaren oroimena* liburu-esparrutik, soilik, aurkeztea ez da onartzekoa, liburu hori *Reduccions*-en laburpena delarik, funtsean, testu-azterketan oinarritu gabea.

Baina, Lasagabasterren artikuluan ez dira aipagarri Hari-txelharrek eginiko lanak, ez Patri Urkizuren *Literatura eta kritika*, ez G. Aulestiaren *Bertsolarismo*-aren ikerkuntza, ez P. Xarriton-en *Jean Etxepare, idazlanak*, ez nire *Lizardi-ren lirika-bideak* (2 tomo) eta *Euskal Lirika tradizionala* (4 tomo), ez Joxe Azurmendiren *Zer dugu Orixeren kontra* eta *Zer dugu Orixeren alde* liburukiak. P. Iztuetaren *Quiton-arrebarekin* lan sakona eta funtsezkoa ignoratu da. A. Zabalak bertsolaritzaren esparruan eginiko bilduma-lan itzela (ia 140 ale), eta X. Amuriza-ren (bi liburuki) bertsolaritzaren hiztegiak eta teknikak ere ez dira komentagarri.

Gauza bera aldizkari literarioen hutsunean; itxuraz, Egan, Euzko Gogoa eta Eusko Ikaskuntzako «Hizkuntza eta Literatura» sailean emaniko lan kritiko eta literario serio zenbait ez du ezagun gure artikulugileak.

Jakin aldizkariaren asmoa txalogarria izan zitekeen, baina, bereziki, euskal literaturaren esparruan emaniko ikuspegia interpretapen aski murriz, subjektibo eta labainkorrean gelditu da. Euskal literaturaren manualetan, adibidez, Villasanteren kondairak lerro bat baino ez edukitzea konpreniezina da, bertan ematen diren beste «autore» batzuen lanak «topikoetan» galtzen direlako.

Gure kulturaren ikuspegi honen aurrean uzkur geldi gaitzke, nahiz eta arlo batzuen zehaztapenetan aportazio ukaezinak egon. Gure ustetan, gure kulturaren ikuspegia askoz patxadatsu, objektibo eta formalago egin behar da, bestela hobe ekintza hain hedatuan ez hastea.

LUIS MARI MUJIKAREN OBJEKTIBOTASUNA

KOLDO ZUAZO

Euskalaritzaren ikuspegi elbarria, murrizta, partzial eta alderakoia, topikoz eta hutsune larriz betea... eskaini omen dut *Jakin* aldizkariko 61. alean, L.M. Mujikak salatu duenez (Egunkaria, 1991-III-02). Eta badauka, euki, Mujikak bere arrazoia. Baina gauzak zuzen ulertuko badira, bere kokagune egokian jarri beharko ditugu nahitaez.

Alde batetik, 1960-1990 bitarteko Euskalaritzaren berri emateko 14 (hamalau!) orrialdetako muga ezarri zidaten *Jakin*-ekoek.

Bestalde, *Jakin*-eko irakurlegoa aintzakotzat hartzeko ere eskatu zidaten, *zabalkunde-aldizkari* bati dagokiona, alegia. Oinarrizkoak ziren liburuei eta Euskalaritza alorrean murgiltzeko abiaburutzat har zitezkeenei lehentasuna emateko gomendatu zidaten.

Baldintza nagusi bi hauek bete ahal izateko oso aukeraketa zorrotza egin behar izan nuen. Batetik, garai horretan gehien landu diren alorrei eman nien nagusitasuna eta horrexegatik baztertu nituen *Morfologia*, *Psikolinguistika* eta *Hizkuntzaren Pedagogia*, *Itzulpengintza*, *T oponimia...* bezalako alorrak. Ez alor hauetan goi-mailako lanik ez zegoelako, besteen aldean atzeratuxeago zebiltzalako baino.

Bigarrenik, eta *Jakin*-eko irakurlegoa aintzakotzat harturik, irakurlego horren eskumenean zeudenei eta ahalik eta ikuspeirik orokorrena eskaintzen zuten lanei eman nien lehentasuna.

Hori dela eta, ez nituen, alde batetik, argitaratu gabe dauden tesi eta bestelako zenbait lan aipatu. Baina, bestetik, ez dut uste, oro har behintzat, Mujikak leporatzen didan “orri urriko hainbat eta hainbat artikuluxken aipuetan” galdu naizenik. Badira, jakina, aipatu gabe eta aipatu ezinik utzi ditudan lanak, baina nekez alderantziz. Nekez, aipatu ditudanak “artikuluxka” kaskar eta alde batera utzi beharrekoak izana. Zer erizpide da, bestalde, orrialde kopuruar en hori? Bada makina bat orrialde lorridun duen ikerlaririk, gauza zuzen eta zentzuzko askorik esan gabe.

Mujikaren salaketaren muinera joanez, baina, badirudi bere izena aipatu ez izana salatzen didala azken batean. Horretantxe datza, nonbait, nire objektibotasun eza.

Alde horretatik esan behar dut ez ditudala hautsi nahi izan jendetasunak eta elkarri zor diogun begiruneak ezartzen dituen arauak. Nire eritzian behar bezalako maila erakusten ez zuten lanei nahiago izan diet ezikusi egin edo “ignoratu”, Mujikak esaten duen legez.

“Ignoratu” egin dut, bai, Mujikaren *La prefijación, clave del euskara técnico y urbano* liburua, ni baino askozaz jantziagoa den Alfonso Irigoyenek *Fontes Linguae Vasconum* (1979), 32. zenbakian eman zion astinaldiarekin nahikoa izan zuelakoan.

“Ignoratu” egin dut Mujikaren “Latina eta erromanikoaren eragina euskaran” doktorego-tesia, tesi hori aztertu zuen epaimahaiak ere “Sobresaliente” soila eman ziolako. Eta

badakigu “normal” samarra den edozein tesiri “Sobresaliente cum laude” eman ohi zaiola. Mujikaren urregorritzko pitxi hori, beraz, “normalaren” azpitik kausitu zuten nire aldean askozaz adituagoak ziren epaimahai hartakoek.

“Ignoratu” egin ditut, era berean, Mujikak Hizkuntzalari-tzari eta Filologiari egin dizkion osterantzeko zenbait “ekarpen” ere, sarri askotan oinarri usteletan eraiki dir elako, Blanka Urgellek *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*, XX-3 (1986) aldizkarian ezin argiago erakutsi zuenez.

Ez ditut, ostera, “ignoratzen” J.M^a Jimeno Jurio edo G. Lopez de Guereñuren lanak (azken honetara behin eta berriz jo nuen neure *Arabako euskara-n*, edonor kontura daitekeen), baina ez nituzke jarriko Mujikaren *Euskal Toponimiaz -ko materialeak*.

X. Kintanaren hiztegia ere ez dut “ignoratzen” (eta nola ignoratuko nuen neu baldin banaiz egileetako bat!), baina ez zait iruditzen Mujikarena honekin pareka daitekeenik. Eta ez dut uste bi hauek ere azken urteotan ateratzen ari diren Retana, Ibon Sarasola eta, batez ere, Euskaltzaindiarenarekin pareka ditezkeenik. Izan ere, Mujikarena nahiz Kintanarena 1977an plazaratu ziren eta, garai hartan izan zuten esanahi ukaezina gorabehera, ez dugu ahaztu behar harrez gero benetan ere urrats galantak egin direla euskal lexikografian. Bestalde, mailak eta mailak daude, eta hiztegi bat OHOkoko neska-mutilendako ezin aproposago izateak ez du esan gura besterik gabe Euskalaritza barruan sartu behar denik. Eta *euskalaritza* ari gara hemen, Mujika jauna.

Amaitzeko hauxe gehituko nuke. Egia da “aunitzetan ikuspegi murriztua” eskaintzen dudala. Hori, batzuetan, *Jakin*-eko arduradunek eta irakurlego motak berak baldintzatzen dute. Nik neuk zenbait arlotan —gehiegitan zoritxarrez— daukadan jakite urria izan da bestetan mugatu nauena. Baina, beste batzuetan, jakinaren gainean egin diot ezikusen zenbait lani. Eta horixe da, hain zuzen, Mujikaren urregorritzko bitxi horiekin gertatu dena.

GUNEN GURPILEAN

MARIANO FERRER

B-52 HEGAZKINEN HOTSA ENTZUTEN
DENAK IRABAZLE. GALTZAILE BAKARRA: UNIBERTSITATEA
EUSKADIKO EZKERRAREN KONGRESUA
ERREPIDEA BAINO GEHIAGO
GEZUR-MALKOAK
MANDOAK HAZIZ GERO...
O-24
MUNDU-ORDENU BERRIA
INTELEKTUAL GALDUAK
EUSKARA AUZIAULKIAN
NEURRI (EZBERDIN) BI
LEGALITATEA
SINESGARRITASUNA
ALEMANIARRAK AMETSETATIK IRATZARTZEN
ATKINSON
ALBANIA
ARRAZOI PERTSONALAK
GOLKOKO GOLAK
OROJALEAK, BARKA, TXANPONJALEAK
IZENGABEKO ALDERDIA
NOLABAITEKO USTEL-USAINA
HOLLIWOOD
SETIEN MADRILEN
BERANDU ETA GAIZKI, INOIZ EZ
DUELA HILABETE BAT BUKATUA



MARIANO FERRER

B-52 HEGAZKINEN HOTSA ENTZUTEN

Arrupek hilohean etzanik B-52ak Golkorantz igar otzen entzutean zer pentsatuko ote zuen galdetzen diot neure buruari. Bere bizitza Hiroshima gainera pasatako B-29aren hotsari lotua da: hegazkin hura bere lehergailu bakarra botatzeko prest egon zen, orain arteko historian izan den lehergailurik ospetsuena.

Arruperen heriotzaren berria iritsi zait Euskadiko armamentaria bat —hark hain ongi ezagutzen zuen bizkaitar burgeseria handiko sendi batena hain zuzen— etengabeko lanean ari dela irakurtzen ari naizen bitartean. Aipatu enpresak mortairuak ekoizten ditu eta gudua hasi baino lehen langileetarik hiru laurdenak enplegu-erregulaziopean zituen. Golkoko krisiak aldatu egin du haren zoria eta baita lantegia

dagoen herriarena ere, herritargoaren erdia baino gehiago handik bizi bait da.

Bakezaletasuna kolokan jartzen gauza gutxi dira militar-industriaren eta enpleguaren arteko harremanak adinekoak. Agian horrexegatik izan dute hain oihartzun eskasa gure artean horrelako berriek. Asturiasen, arma-industria saileko UGTko koordinatzaileak Trubiatik Saudi Arabiara 230 obusen bidalketa aipatu beharra izan zuen: “Guduaren kontra gaude, lana nahi dugu baina”. Hemen, ezta hori ere.

Arrupe dut gogoan. Hain gaisorik zegoela pentsatzeak kontsolatu egiten nau, horrelako egoeran ez bait zen, ez B-52 hegazkinen hotsa entzuteko, ez ni orain pentsatzen ari naitzena pentsatzeko gai izan.

Otsailak, 4



DENAK IRABAZLE. GALTZAILE BAKARRA: UNIBERTSITATEA

Donostia eta Gasteizko Gizarte-Auzitegiek beren epaia ezaguterazi eta bi egun beranduago, UPV-EHUtik kaleraturiko irakasle asoziatuen kasua dela eta, badirudi denak irten direla irabazle: bai irakasleak, Donostiako epaiak ia kalera-tze guztiak baliogabetu dituelako; eta baita Erretoregoa ere, Gasteizko epaiak kaleratzerik ez, baizik eta kontratuen bukaera ondorioztatu duelako eta Donostiakoak, bere aldetik, irakasleen lan-kontratuak behin-behinekoak eta ez muga-gabeak direla baieztatu duelako.

Amaierako irabazlea edozein delarik ere —fase honetako hirugarren erasoaldia falta bait da oraindik, Bilbon burutuko dena hain zuzen—, gatazka hau Unibertsitate barruko beste zatiketa bat ari da eragiten. Jakina, Herri honetan gertatzen den guzti-guztiaren azalpen-gakoak beti beste gatazka

baten zerbitzuan —gatazka politikoarenean alegia— daudela uste dutenek ukatu eginen didate horrelakorik.

Autobidea dela, *Euskaldunon Egunkaria* dela edo irakasle asoziatuen gatazka dela, diagnostikoa beti berdina da: ekologia, euskara eta unibertsitateko lan-kontratua ez dira helburuak. Inola ere ez! Den-denak, erakundeei err onka egin nahian Herria desorekatzeko edozein kausa tresna gisa erabiltzen duen azpijoko bakar eta aldakorraren estalki ezberdinak baino ez dira.

Beti izan dira gaisotasun guztiak aspirinaz tratatu dituzten medikuak.

Otsailak, 6



EUSKADIKO EZKERRAREN KONGRESUA

Kepa Aulestiak bere “kudeakuntza txostenean” honako hau zioen: “Azken hauteskundeetako EEren porr otaren zergatia edozein preziotan gobernura iristeko irrikan ikusi behar da.”

Neuk era honetan esango nukeen: Kepa Aulestiak gobernuan balego bezala eman zuen legealdi osoa.

Otsailak, 10



ERREPIDEA BAINO GEHIAGO

Autobidea errepide bat zen. Politikazko bar ne-aldaketa sakonaren prozesu neketsuak “beharrizan demokratiko” bihurtu du. Horrela aldarrikatzen du eusko erakunde guztiek

—Nafar Parlamentu barne— egun Donostian sinaturiko agiriak.

Paktu-politikariek jakin izan dute gatazka beraiei gehien komeni zitzaien esparrura eramaten. “Lurrealdea”k kritikatu egin du eztabaida askatasun eta demokraziari buruzko gezur-hitzez hutsaltzea, guztia iruzur politiko eta hizkuntza faltsupentzat joz.

Orain alferrik da politikariei eman zaizkien abagaduneez baliatu direlako errenkuratzea. Ikustekoa zen eta bere garaian ekidin ahal izan zen. Ez zen, ordea, prezioa ordaindu nahi izan. Beldur naiz ez ote zen ETaren asmokentze-inderaz gehiago fidatzen gizarte zibilaz baino.

Otsailak, 11



GEZUR-MALKOAK

Militar-hizkeran egintza bat seinalaturiko helburua aurkitu eta hura begi-puntuan izanik, jaurtikigaia erauzten denean arrakastatsutzat jotzen da. Era honetan lortu zen, Pentagonoak dioenez, Golkoko guduaren lehenengo 2 egunetan arrakasta handia (%80a). Hemen ez da kontutan hartzen jaurtikigaiak helburua jo zuen ala ez; baldin objetiboa aurkitu eta jaurtikigaia erauzi bazen, egintza besterik gabe arrakastatsua da. Arrakastatsua da, baita ere, betean emandako zuria —militar-bunkerra izan beharrean, uste bezala— ehundaka hiritarrentzako babeslekua bada ere. Gudua gudu da eta bere-berezko arauak dauzka.

Egun hauetan gudua beharrezko zela pentsatu zutenek aitortu behar dute orain irakiar direla besterik ez dakigun zibilak hiltzea ere beharrezkoa dela. Aitor bezate horrelakoek gudu egiteko arrazoinak haien bizitzak —besteenak, noski— baino garrantzitsuagoak direla; bizitza horien galerak sobe-

rakin mesedegarria ematen duela: guk ez dugu pertsona horiek hiltzea nahi, jakina; baina horrela gertatuz gero, zer egingo diogu ba? Zorte txarra halakoena!

Denok aukeratzen dugu une batean edo bestean guretzat garrantzikoa zer den. Lasai bitez gudu hau xuriturik dagoe-la baieztatzen dutenak eta Sadam Huseinek babeslekuan ehundaka herritarrak ipini zituela hiltzeko uste dutenak. Badakizu, irakurle, Sadam Husein mamutzar ikaragarria baino ez da eta.

Orain mamutzarra nork egin zuen galdetzeak ez du ezertarako balio. Orain haren aurkako gudu santura hots egiten dutenek lehen armaz bete zuten eta bere arabiar aitzindaritzaren lilurak bizkortu, gizon horrek 10 urtez egin zituen ankerkerien aurrean heuren begiak itxiz. Orduan ere, garrantzizkoagoa bait zen Sadam Huseinen bitartez erdiesten zena horren truk ordaindu beharreko pr ezioa baino. Nolanahi ere kurduak, iraniarrek eta irakiarr ek beraiek ordaintzen bait zuten euren haragitan.

Orduan begiak itxi bagenituen, orain ere gauza bera egin genezake Amiriyako bunkerrean hildako ehundaka pertsona horien aurrean. Horrela gezur-malkoak irteteko arrisku txikiago izanen dugu.

Otsailak, 13



MANDOAK HAZIZ GERO...

Otsailaren 23ko (O-23) 10. urteurrenak estatu-kolpe famatu eta erdi-porrota izandakoari buruzko historia eta pasadizo asko ezagutarazi dizkigu. Guzti honek baieztatu egiten du, nolabait, matxinatuek Kongresuan itxaroten zuten “elefante zuria” Armada jenerala zela. Elefante baldarregia suertatu zen baina, egin nahi izan zuen joko zailarentzat: alde

batetik, Erregea eta botere zibila defentsiban jartzeko kolpea bultzatu eta, bestetik, eta aldi berean, gobernu-lehendakari-tzara eramango zuen egintza batez balaztatzea.

Armadak jokaturiko paperaren garrantziak lehen mailara dakartza kolpe-bezperan aipatu jeneralak zenbait politika-riekin izandako solasaldiak. Armadak, Enrike Mujikarekin Lleidan izan zuen elkarriketaz galde egin zaionean, berriketaldia izan zela aitortu du, baita bertan ez zutela inolako egintza politikorik aipatu gaineratu ere. Alfonso Armadaren hitzak hauexek izan dira: “Mandoen hazkuntzaz baino ez ginen mintzatu.”

Aitorpen honek ez digu O-23ko ezkutuko azpijokuar en deusik argitzen, baina ministro-ohiak botatzen dituen leloke-rien (astakerien) sorburua ulertzen laguntzen digu behinik behin.

Otsailak, 23



O-24

Dagoeneko egin dira autobideari loturiko bi manifestaldiak.

Eta (orain) zer?

Otsailak, 24



MUNDU-ORDENU BERRIA

Bushek su-etena aldarrikatu berri du. Gudua amaitu da. Bushek abuztuaren 30ean iragarritako mundu-ordenu berriak bide librea dauka.

Ba dirudi, ez dagoela mundu berriaren motore gisa historian sartzeari uko egiten dion estatubatuar presidenterik. Oroi gaitezen Johnsonek *new society* (gizarte berria) agindu zuela, Kennedyk *new frontier* (muga berria) eta Rooseveltek *new deal* (gizarte-akordio berria).

Bush ez da, hortaz, oso originala izan. Gorbachovek, bere aldetik, esamolde bera (“mundu-ordenu berriaren hasieran baizik ez gaude”) erabili zuen New Yorken apirilaren 11n.

Izan gaitezen zuhurrak baina. Ez dezagun oroimenbidean atzerantz egin, Hitler-ekin topatu bait ginateke. Honek ere *die neue Ordnung* (ordenu berria) iragarri zuen.

Inork ez digu, ordea, ordenu berri hori zertan datzan oso ongi azaldu. Profetarena egiten hasiz gero, Máximoren koa-dro bat aukeratuko nuke:

“Mundu-ordenu berria: Ala handia da. Bush ez da txikia.”

Otsailak, 27



INTELEKTUAL GALDUAK

“Ideologia ezberdinek errautsiriko eta intelektualak sarri galdurik egondako mende honen bukaeran, balantzea egiteko ordua heldu zaigu.” Honela aurkezten digu Frantziako *L’Express* aldizkariak lau intelektualekin (Olivier Duhamel, politologoa; Luc Ferry, filosofoa; Edgan Morin, soziologoa, eta Bernard Henry-Lévy) egindako mahaingurua.

Hona hemen zatitxo bat.

- *Ferryk*: “Estalinismoak edo nazismoak, bi totalitarismoek, elkarren arteko aurkaketaz gainera, humanismo berria sortzeko asmoa ere badute. Izozturik eta hilik ziruditen sistema demokratiko eta liberalen aurr ean bizia, mugikortasuna erreibindikatzan dituzte.”

• *Duhamelek*: “Gogora dezagun, hala ere, bata eta bestearen arteko funtsezko aldea. Iraultza komunistak demokrazi eta berdintasun-ideiala, mugarik gabea, proposatzen zuen. Nazismoaz ez dago gauza bera esaterik.”

• *Morinek*: “Komunismo estalinista ez zebilen gizaki naturalaren garbitasun bila. Giza-natura baliabide artifizial, politiko eta sozialen bitartez nahi zuen eraberritu eta erabili.”

• *B. Henry-Lévyk*: “Ez nator horrekin bat. Totalitarismoaren eragilea garbitasun, gaztetasun eta abarr ekiko liluramendua izan da, eta hau kontutan hartzekoa da, gai hauek —liluragarri eta edozein unetan berragertzeko gauza direnak— gure inguruan ditugu eta.”

• *Morinek*: “Nire kasuan, ordea, gaztediaren sakrifizioak, heriotzeak eta garbitasunezak erakartzen dute nire atentzioa. Mundu berria gauzatzeko ‘eskuak zikin’ eduki behar zirela pentsatu dutenak asko (izan) dira. Mende honetako egiazko mito errauslea ez da ‘naturalismoa’ izan, iraultzaren bidezko salbazioa baizik.”

• *Duhamelek*: “Errakuntzaren sustraia hauxe izan da, intelektuala politikak irentsi duela. Intelektualak ez du jakin izan bere paperaren eta militante eta liderraren artean bereizten. Konpromezu orok darama (gizakia) errazkeria eta itsukeriatara. Funtsean, ordean, intelektualak irristatze horri aurre egingo diola espero daiteke. Alegia, politikariek ez bezala, ez dezala onartezina bere egin beste lehentasunezko burruka bat lehenago amaitu beharra dagoen aitzakiaz.”

Otsailak, 28



EUSKARA AUZIAULKIAN

Kultura Kontseilariak esana da: “Euskara behin eta berri- berri auziaulkiratzen nahikoa da jadanik!” Kontseilariak une

hartan sozialisten proposamen hau zuen gogoan: hizkuntz politika arloan eusko erakunde publikoek hartuko dituzten akordioak kontrolatzen arduratuko den batzordea sortzea. Beronen xedea hauxe: “Administrazio-lan deialdietan, euskararen balorapena dela eta, gehiegikeriak ekiditea.”

Arregi mindu egin zen. Espero bezala. Sozialistak ez dira, ordea, euskara susmopean jartzen duten bakarrak. Besteen euskara esan nahi dugu, jakina. Esate batera, Arregi bera, *Egunakaria*z honako hau esan bait zuen: “Kaleratu den egunkaria... erdarazko egunkari baten kopia da. Euskara behar bezala landuta ez dagoela ikusten da. (Behar dugun euskal egunkaria) ez da borondate hutsez egiten. Hori ez da arrazoin politikoengatik egiten.” Edota Mikel Olazir egi, ETBkoa, Korrikari buruz Gorordorekin egin nahi izan zuten elkarriketari emandako ezetza azaltzean ondoko argipena eman zuena: “Parlamentuak ez dio bere laguntzarik eman Korrikari, eta guk ezin dugu Gobernuaren kontra jo.”

Euskara horrenbestetan auziaulkiratuz gero, ez da inoiz ordezkoen eserlekutik irtenen.

Martxoak, 2



NEURRI (EZBERDIN) BI

“Linaza” kasuan Bilboko Probintzi Auzitegiak 9 goar dia zibil zigor ezberdinetara kondenatu zituen tortura- eta prebarikazio-delituengatik.

Goardia Zibilen Zuzendariak uko egin dio 9 kide horiei inolako barne-zigorrik ezartzeari eta baita espedientea irekitzeari ere. Legezko argudioen artean, Roldán jaunak honako honi heldu dio: epai tinkoa ez den bitartean —goragoko epaitegira jo bait dute—, goardia zibilek errugabetzat hartuak izateko eskubidea daukate. Roldán jaunak, ordurarte huts-

gabeko jokabidea izan zuten funtzionarioei kalte handiagoa egitea ekidin nahi duela jakin erazi du.

Egun hilabete bat, Bizkaiko 4. Gizarte-Auzitegiak legezkoa iragarri zuen duela zenbait urte egindako lapurketagatik zigor-aurrekariak zituen langile baten kaleratzea. Lan egiten zueneko garbikuntza-enpresa jabeak, kaleraturikoak “ez zuela bere konfidantza merezi, Estatuak ezarritako zigorra zela medio” arrazoitu zuen.

Horrelakoari gonparaketa-iraina esaten zaio.

Arrazoizkoa ote da “Linaza” kasuan kondenaturiko 9ek ordurarte hutsgabeko jokabidea izan zutela sinestea?

Martxoak, 6



LEGALITATEA

Espainiar Barne-Ministeritzako goikargudun batek iaz Estatuan eginiko 17.000 ageriko manifestaldietarik %80ak legeak eskatzen duena bete ez zuela jakin erazi digu.

Bururatuko ote zaie lege-eskakizunak aldatzeko ordua iritsi dela ala nahiago izanen dute manifestaldiak eragozten jarraitu?

Gaur bertan, Ertzaintzak Eibarren G.A.C. bizikleta eta ziklomotore-enpresako 300 langilek buruturiko manifestazioa biolentzia handiaz eragotzi du. Ertzainek lehenengo aldiz Eibarren istilu kontrako materiala erabiliz, gomazko pilotak bota dituzte ber-bertatik zenbait pertsona zaurituz.

Aginteez, seguruenik, beraiek lege-eskakizun guztiak bete zituztela argudiatuko zuten.

Martxoak, 7

SINESGARRITASUNA

Otsailaren 20an Imanol Murua Gipuzkoa Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak —gehienbat sinbolikoki— herrialde honi dagokion autobide-zatiaren obrak inauguratu zituen. HBko Jose Mari Olarrak gudu-adierazpentzat jo zuen egintza hura.

Egun ETAk, Valencian *Ferrovial* enpresako azpiordezka-riaren hilketa bere gain hartzean, autobide-arazoan ez sar-tzeko borondatea aldarrikatu du.

Olarra ETA baino sinesgarriagoa zaigu.

Martxoak, 8



ALEMANIARRAK AMETSETATIK IRATZARTZEN

Helmut Kohlek alemaniar Estatuaren birbatuketa zer gak igotzeke eginen zela agindu zien mendebal-alemaniarrei; eki-alemaniarrei, berriz, jasaten ari ziren bizi-baldintzak baino txarragorik ez ziela ekarriko hitzeman zien.

Zergak igo berriak dituzte, eta Ekialdean alemaniar asko duela urte bat baino gaizkiago bizi da.

Eki eta mendebal-alemaniarrek, ordea, ez zioten SPDko Lafontaineri entzun nahi izan: hau, ur -korrontearen konta igeri egitearen beldurrik gabe, birbatuketa arinegiaren aurka azaldu zen, honek ekarriko zituen ondorio negar garriak behin eta berriro ohartaraziz. Kohl hautatu zuten.

Politikaren xarma honetantxe datza hain zuzen ere, nork asmatu zuen galdetzea bidezkoa dela: Lafontaineek, gertatu behar zena iragarritz ala Kohlek, gero berak guazatzerik izango ez zuena hitzemanetz, Alemania bateratzeko aukera bi bider igarotzen den postaria izango ez ote zen beldurrez.

Martxoak, 9

ATKINSON

Realaren garaipen “historikoa”. Lehen aldiz irabazi du Bernabeun (Madrilen) liga-partidua. Athleticen porrota (0-6), Barçaren aurka, aurrekoa bezain historikoa. Athleticena bazter utzi eta Realari helduko diogu.

Jokalari atzerritarren fitxaketa dela eta, Donostian esames eta gorabehera ugari dago. Bertako harrobian oinarritutako taldearen politika aldatzea, asmaketa ala errakuntza izan da? Futboltzaleak eztabaidatu egiten ditu argudio ezberdinak.

Batzuei eta besteei entzun ondoren, bateratasun historiko bat datorkit burura. Harrobi-mittoa Gipuzkoan asmatu zen politika-aldaketa garaian. Kirol-politika hura lehenagotik zetorren arren, zaleak ikurrina eta autonomiaren aldeko burruka-urteetan egin zuen bere. Urte haietan “geurea” eztabaidatu ez eta egintza-arlo guztietara hedatzen zen balioa genuen.

Atzerritarren onarpen orokorrak —baldin holako jokalariek taldeak hobeto joka edo/eta irabaz dezan balio badute, biak aldi berean eskatzea gehiegi bait da— zenbait gauza adieraz lezake. Honako hauek besteak beste: bata, “geurea” kontzeptua orain lehen baino era zabalagoan ulertzen dugula eta, bestea, geurearekin ez dugula nahikoa, baldin ona ez bada.

Horrela izanez gero, aurrerapausoa egin dugula ezin ukatu.

Postdata: Atzerritarren fitxaketaren aldekoa ala kontrakoa naizen galdetuz gero, ez nuke jakinen zer esan. Kalitatezko eta geurea den taldearen utopiari uko egitea zaila zait eta.

Martxoak, 10

ALBANIA

Mingarriak benetan Italiako kostaldera iristen ikusiriko milaka albaniarren irudiak! Hauek bezain mingarri italiar agintarien nahasmena euren gainera etorritako arazoa nola konpondu ez dakitela ikustea. *Il Corriere della Sera*-ren editoriala guztiz zuzena izan da:

“Erromatik gobernu-bozeramaleak errefuxiatuei hemen inolako Eldoradorik ez dagoela sinesterazten saiatzen dira. Alperrik baina. Urteak eman ditugu diktadura komunistek zapaldurikoei geurea ongizate- eta askatasun-paradisua zela sinesterazten. Orain ez dugu atzera egiterik. Mendebaldeko garaipena ez da dohakoa.”

The Economist astekariak bere azken alearen azalean Europarako bidean etorkinez beteriko autobus bat aurkeztu digu. Autobusaren aurre-goiburuan, helmuga bat: “El Dorado”. Bere editorialaren izenburua ere oso da esanguratsua: “Pobreak ate-joka.” Diagnostikoa: nazio eta Estatu aberatsek serioski hartu beharko dute pobreen bizibaldintzak hobetzea berauen sorlekuetan.

Solidaritza-aztarnarik? Ezta bat ere. Norkeria hutsa. Honexek irekitzen dio leiho bat itxaropenari.

Martxoak, 11



ARRAZOI PERTSONALAK

*Esnaola ha dimitido.
Nadie sabe cómo ha sido.*

Martxoak, 12

Itzulpena: Joan egin da Esnaola.
 Inork ere ez daki nola.

Oharra: autoreak eskaturik, testua gaztelaniaz ere ematen dugu bere osotasunean ulertu ahal izateko. Egilea Machadoren “La primavera ha venido, nadie sabe cómo ha sido” testuan oinarritu da.



GOLKOKO GOLAK

Gudua ahazteko goiz da oraindik. Batez ere kazetari gisa burua tente eraman nahi genukeen guztioi memelo-aurpegia geratu zaigula oharturik.

Igancio Ramonet, *Le Monde Diplomatique* zuzentzen duen 48 urteko galiziarra dugu. Komunikabideetan aditua berau. Madrilen egon delarik, guduan informazioak jokatu zuen zoritzarreko papera azaldu du:

“Golkoko informazio-porrota ulertzeko Txinako (Tiannamen), Berlingo (Murrerorketa) eta Errumaniako (Ceaucescu boteretik kentzea) gertakarien TB-emanaldietara jo beharra dugu. Jazoera haien informazio telebisatuak ondoko mezua eman zigun: historia konprenitzeko ikustea nahikoa zaigula. Une hartan kazetariak komentaria izateari utzi zion eta kirol-kronikari bihurtu zen, pilotaren hara-honakoak jarraitu eta nork ukitzen zuen esatea besterik ez zuen. Kronikaria Golkoko krisia iritsi eta gero, gudu-partidua emateko milaka kazetari bildu zen bertara. Agian ez zuten gogoratu nahi Vietnamez geroztik guduak ezkutukoak direla, boter e-sistemek erakusten ez dena ez dagoela ulertu bait dute. Hantxe zeuden kazetariak beren lantresna oso gar estiekin irudirik ezin emanik eta informaziorik ez zutela errepikatuz.”

Martxoak, 13



OROJALEAK, BARKA, TXANPONJALEAK

Herri Kontuen Eusko Epaitegiak txanpon-makinen eskandaluan 'Aski!' esan du. Bere txostenean 2.503 makinak legezkontrako hustirapen-baimena dutela finkatzen du. Txostena nolako baldintzatan burutu den kontutan hartuz gero, arrazoibidez legezkontrako baimenen gutxieneko kopurua 2.503koa dela atera liteke ondorio. Hortik gorakoa, hortaz!

Argituko al du Justiziak kasu hau? Oraingo ez dago galdera honentzako erantzunik. Itxoinaldia ondo pasatzeko duela urtebeteko prentsan (*El Diario Vasco*, 90-03-17) azalduriko bi berriren izenburuak berrikustea iradokitzen dizuet.

Lehen izenburuak «Portuondok 16.722 txanpon-makina daudela baieztatu du eta horien baimen-banaketan irregulartasunik egotea ukatu du. Joku-zuzendariak 'egon daitekeen ezlegezkotasun-esparrua ez dela %1era iristen'» dio.

Ikus dezagun! 16.722ren %1a 167'2 da. Egiaztaturiko ezlegezko lizentziak, ostera, ez dira 167, 2.503 baizik. Hots, ezlegezgotasun-esparrua ez zen %1a, %15a baizik. Gutxienekoa!

Bigarren izenburuak: «PSEk EA eta EE txanpon-makinen baimenei buruzko ikerketa 'politikoki erabiltzeaz' salatu ditu.»

Ikus dezagun! Urtebete beranduago, jadanik PSE gobernuan ez dagoela, zenbait buru sozialista EAJk ez duelako beraiekin ongi jokatu arrenkuratzen dira: «EAJk ez du behar bezala ordaindu lehengo Gobernua —batez ere Joku eta Ertzaintza-sailei dagokienekoa— mantentzeko sozialistek egindako ahalegina, gobernu kideekiko leialtasunagatik, 'alderdia salduta egon zenean', emandako adostasun-irudia» (*El Diario Vasco*, 91-02-23).

Orain PSE, Gobernuan ez dagoen unean, lehendabizikoa izan da, Herri Kontuen Eusko Epaitegiaren txostena ezagutu ondoren, erantzunkizunak eskatzen. Oraingoan ere, ez du gehiegi estutuko baina.

Martxoak, 14

IZENGABEKO ALDERDIA

EMK eta LKI alderdien bategitea ofizialtzen duen Kongresua bukatu berria dugu. Urtebeteko epea hartu dute alderdi berriari izen egokia aurkitu arte.

Ez da batere seinale txarra. Gure Herrian hainbat zorigaitz abiapuntua “berbatxoa” izan delako gertatu da.

Martxoak, 19



NOLABAITEKO USTEL-USAINA

Berriek gerezien antzera azaltzeko joera dute: anitzetan binaka datozkigu. Honatx azken uztak emandakoa:

Paris. Philippe Marchand Barne-Ministrariak polizi gorpuztetik bota du Antoine Gaudino, Marseillako Ekonomi Delitueterako Brigada-inspektorea. Gizon honek François Mitterranden azken hauteskunde-kanpainar en finantzapenaren sekretu zikinak aurkitu eta liburu batean argitaratu zituen, bere nagusiek kasutik alden du eta gero.

Madril. Eladio Escusol, “Amedo” kasua bere gain hartu zuen fiskala, Epaitegi Goreneko kide izendatu dute. Escusolek Ignacio Gordilloren lekua hartu zuen, azken honek GALEn zenbait egintza finantzatzeko erabilitako “diru gorde” famatuaren ikerketarako gobernu-laguntza eza ikusirik kargutik kentzea eskatu bait zuen. *El País* egunkariak dioenez, Escusol fiskala “GALEko kideak ikertzeko izan duen ekimen eskasagatik nabarmendu da.”

Frantziar Barne-Ministrariak, Gaudino poliziak salatutik inoiz zalantzan jarri ez duenak, era honetan xuritu du Gaudino polizi gorpuztetik botatzea: “Gaudino inspektorea,

hiritar orok duen funtsezko betebeharra —diskr ezioa alegia— hautsi egin du.”

“Amedo” kasuaren fiskalak bere funtsezko betebeharrak ongi baino hobeto ezagutzen dituela begibistakoa da.

Martxoak, 22



HOLLYWOOD

Gezurra dirudi 40 urtez indioei buruzko filmeak ikustera joaten pasa ondoren, atzo arte senar-emazte azalgorri biren arteko maitasun-irudirik, ohe-irudirik alegia, ez ikusteak, ikusitakoa bufalo-larruzko zakuan ongi gorderik agertzen bazitzaigun ere.

Are txarragoa, ordea, atzo “Otsoekin dantzan” filmean ikusi arte horrelako irudien hutsaz ez ohartzea. Honek este-reotipoak era akritikoan noraino geuregana ditzakegun era-kusten digu.

Kevin Costner-ekiko eskerronez beterik, aipatutako irudiek segundu batzuk baino ez irauteak ez dit axolarik, ezta pelikula-zatirik handiena sioux-tribu batek semealabatzat harturiko bi zurien arteko maitasunaz aritzeak ere.

Martxoak, 25



SETIEN MADRILEN

Duela urte bat, gure politikariek etxean jokatzeko zuten. Gasteizko Parlamentuan autodeterminazio-eskubidea zuten eztabaidagai. Setien gotzaiak atzo, Madrilgo *Siglo XXI*

delakoan “Europa berriaren nazionalitate eta estatuak” hitzaldia ematean, kanpoan jokatzeko zuen. Etxetik kanpo eta, zenbaitentzat, zelaitik kanpo ere bai. Zertan ari da gotzain bat, politikari argi eta garbi loturiko gaiez mintzaldiak ematen?

Aurpegi emateko orduan, Gotzainak etxean bezala jokatu zuen. Setien kontzeptuen artista da. Bere testua hastapenen arkitektura zen eta baita etikatik abiatuz haien ondorioak ateratzeko gonbitea ere. EAJ, EA eta EE, oster, etxetik kanpo jokatzeko duenaren antzera aritu ziren Gasteizen orain dela urtebete. Itxurak gorde, azal-apainak egin eta eztabaida baztertzeko utziko ziren testua idatzi zuten.

Otsailak, 15



BERANDU ETA GAIZKI, INOIZ EZ

Gure amak askotan esandako hitzak dituzu hauek, irakurle. Berandu eta gaizki egiten dena, ez da egin.

Hauxe esan zukeen amak, bizi izan balitz, Gorbachovek antolaturiko batasunari buruzko erreferendumaz. Eraitza ez zaio inori axola.

Martxoak, 17



DUELA HILABETE BAT BUKATUA

Golkoko gerra gauza gutxi definitzen dute hobeto TBn ikusitako agerraldi lazarriak baino, irakiar soldatu batzuek —beren buruak entregatzerakoan— babeszuloetik irten eta

beren *askatzaile* estatubatuarren botei muin ematen zietela ikusteak baino alegia.

Gero jakin dugunez, emanaldia TB-kameradun batzuen eskeei esker egin zen, berauek gertaturikoa kontatzen entzun bait zuten, eta ondoren preso hartutakoei eskena errepikatzeko erregutu zieten filmatu ahal izan zezaten.

Gerra hau, gezur guztien ama, egia batez erditu da. Irakiarren oin-muina, agindutako mundu-ordenu berriar en sinboloa da; TBk eginiko gezurrezko irudietan iristen zaiguna. Bai egia galanta gezur batena!

Martxoak, 27

Euskaratzailea:

TXEMA AUZMENDI

IBURUAK

JOAN MARI TORREALDAI
1990eko EUSKAL LIBURUGINTZA

EUSKAL LIBURUGINTZA 1990

JOAN MARI TORREALDAI

Hamalau urte jarraian egin dut urteko euskal liburuen bilketa. Eta bilketarekin batera, azterketa. 100 liburu baino gutxiagorekin hasi nintzen 1976ko azterketan, eta gaur ia 900 liburutan gaude. Bada alderik.

Egungo produkzio-mailan kostu handikoa da lan hau. Kostu handikoa, denbora aldetik neretzat, eta ekonomikoki aldizkariarentzat. Luzea eta garestia, alegia. Hau bateko. Eta besteko, lan hau ez dagokit zuzenean neri, Eusko Jaurlaritzari baizik.

Sekula ez dut ulertu Eusko Jaurlaritzak zergatik ez duen bereganatu euskal liburugintzaren azterketa ez bada ere, gutxienez kontrol estatistikoa. Azterketarekin gustora segituko nuke, egia esan. Hasi nintzenean bistan da zer gatik

hasi nintzen horretan: gure geure erakunde-faltaz etxeko informazioa ezagutarazteko, noski. Zerbitzu bat eskaini-asmoz, alegia. Baina harrez gero egoera asko aldatu da. Bada ia dozena bat urte geure erakunde eta guzti gaudela, eta badela garaia zerbitzu hori dagokionaren eskuetan uztekoa uste dut.

Hitz gutxitan esanda, lan honetan jarraitzeko prest nago ni neu eta prest dago aldizkaria. Baina ez baldintza hauetan. Orain baino lehen ere agertu izan dut nere jarrera. Ez uzteko, gomendatu didate lagunek, ez duela inork hartuko eta. Hartzea zegokionari ere esan izan diot behin baino gehiagotan, eta alferrik. Ea ba, oraingoan, hutsuneak premia azaltzen duen. Azken azterketa da, beraz, oraingo hau, baldin eta...

Baina sarrerak eta jarrerak bazter utziz, goazen orain azterketara zuzen.

PRODUKZIO OROKORRA


Aurtengo liburu-ekoizpenari dagokionez, zer esan?

Liburu-kopuruak goraka egin duela berriz ere. Iaz behe-rakadatxoa izan zuen, nahiz eta handia ez, baina aurten gora egin du nabarmenki. Ia 100 liburu eta liburuska gehiago atera da 1990ean. Iazkoaren gain %13 bateko gorakada izan du, eta ez %31koa, agentzietan zabaldu denaren kontra. Igoerarik nabarmenena irakaskuntz liburuan izan da (70 liburu gehiago) eta ondoren literaturan, bai haur eta gazte-literaturan eta bai helduenean. Jaitsi egin da, aldiz, euskararen azterketako eta irakaskuntzako materiala.

Aurreko urteko produkzioarekin alderatuz, kopuru orokorretan euskal sorkuntzazko liburuak pittin bat gora egin du (23 liburu gehiago), baina dexente gehiago hazi dena itzuliriko liburu-kopurua izan da (60 unitate gehiago). Pittin bat jaitsi egin dira —zifra absolututan beti— elebiko liburu eta berrargitaratua.

Hauxe da, bi lerrotan, aurreko urteko ekoizpenar ekin konparatuz 1990eko liburugintzak ematen duena. Ohar argigarri bat zor zaio honi. Aspaldi errepikatuz nator aurreko urtekoarekin egindako alderaketa ez dela inoiz oso esanguratsua, joera nagusiei dagokienez, nahiz eta urtekoaren tamaina hartzeko bide eman. Urte bat baino gehiago err eferentziazat hartuez gero, ez dakit lege soziologikotzat eman daitekeen baina, bada hazkuntz erritmoan konstatazio bat. Bizpahiru urtez behin egiten du produkzioak gora, tartean gerakuntza txiki bat badelarik eta “zubi” gisako urteak ere badirelarik.

Aipaturiko guzti hori argiago ikus daiteke ondoko grafi-koan.




BARNE-ANALISIETAN BARRENA

Zifra absolutuak eta aurreko urtearekiko konparaketa orokorrak aparte utzita, goazen liburu-ekoizpenaren barne-konposaketak sistematikoki aztertzeraz. Urtero bezala, aurtan ere hiruzpalau analisi-mota egingo ditugu.

BERRARGITARAPENETIK SORKUNTZARA

Hots, urteko produkzioan zenbat liburu da euskaraz sorkuntzerria, zenbat itzulia, zenbat berrargitaratua (eta zenbat, azkenik, bizpahiru hizkuntzatan emana)?

Grafikoak ongi dager bakoitzaren tamaina:



- Sorkuntzazko liburua da nagusi, baina ez da produkzioaren erdira iristen: %45,5. Estatu espainiarreko produkzioan %76 izan da urte berean lehen inprimaketa ez itzulia. Oso behetik gabilta produkzio propioan, ikusten denez. Eta, gainera, gero eta beherago urtero urtero: 1985ean %63,5 zen lehen inprimaketa ez itzuliaren pisua eta 1990ean %45,5era jaitsi da.

- Arras kontrakoa gertatzen da liburu itzuliarekin: urtero gora egiten du. 1990ean %36,7 itzulpen publikatu da eta, aldiz, %17,5 bakarrik 1985ean. Estatu espainiarreko datuetan iazko itzulpenen pisua %26koa da, 10 puntu gurearen azpitik.

- Berrargitarapena jaitsi egin da 1990ean. Aurreko urtean baino gutxiago berrargitaratu da eta, ondorioz, urteko liburu-

rugintzaren barruan bere pisua jaitsi egin da: %16,5. Estatu espainiarrean baino dexente gutxiago: %24. Jaitiera honek, halere, ez dut uste joera sakonik adierazten duenik. Beherakadatxo hori ez ote plangintza editorialaren fruitu soil, hau da, zenbait liburu-mota bizpahiru urtez behin, eta ez urtero, ematen direla argitara?

Esandakoa laburbilduz, ekoizpen propioa urtetik urtera jaitsiz doa zenbaki erlatibotan; 1988an hasi zen produkzio osoaren erditik behera izaten. Liburu itzuliaren gorakada, bestalde, etengabea da hori ere urtetik urtera. Nahiko gertua dirudiena berrargitarapenaren batazbestekoa da. 1988 arte paretsu zebiltzen itzulpena eta berrargitarapena, baina, orduan hasita, itzulpenaren alde jarri da balantza nabarmenki. Konpara ditzagun datuok ondoko taulan:

		1985	1986	1987	1988	1989	1990
Elebiko liburua.....	%	8,5	10	12,5	12,5	13,5	8
Liburu itzulia.....	%	17,5	22	28	35	33,5	36,5
Liburu berrargitar.	%	18	22	26	18,5	19,5	16,5
Sortuberria (eusk.)	%	63,5	59	53,5	49,5	48,5	45,5

Bada uste duenik berrargitarapena lehen inprimaketarekin batera zenbatzeak argitu beharrean izkutatu egiten due-la errealitatea. Eritzi honen arabera, produkzioaren nondik-norakoa hobeto antzemango litzateke euskal jatorriko liburu berria eta itzulitakoa elkarren ondoan jarriz, eta berrargitarapena baztertuz. Honela jokatzuz, bada, 1990eko liburu berrriaren produkzio osoa, nahiz propioa nahiz itzulia, 701ekoa da, eta horretatik euskaraz sorturikoak %60 hartzen du eta itzuliak %40, hots, aurreko urteko proportzio bera.

KONTZEPTUZ KONTZEPTU

Sorkuntza/Itzulpena/Berrargitarapena: kontzeptu hauekin gabiltza bueltaka, berauetako bakoitzaren parte-hartzea zenbaterainokoa den neurtu nahian. Ez da nahikoa datu orokorrak aipatzea. Analisia fintzera joz, interesgarri da ezagutzea zer gai-mota sortzen den gehiena, eta berdin zer itzultzen den edo zer argitaratzen gehien.

Ondoko taula hauetan azaltzen dugu informazio jakingarriena:

SORKUNTZA

Ordena	Saila	Kopurua	%
1	21	107	28,5
2	08	95	25,0
3	01	77	20,5
4	11	29	7,7

BERRARGITARAPENA

Ordena	Saila	Kopurua	%
1	08	63	45,5
2	01	37	27,0
3	21	22	16,0
4	11	8	5,8

ITZULPENA

Ordena	Saila	Kopurua	%
1	01	182	60,0
2	08	47	15,5
3	21	29	9,5
4	03	13	4,3

ELEBITASUNA

Ordena	Saila	Kopurua	%
1	04	17	28,5
2	23	10	15,0
3	22	7	10,5
4	05	5	7,5
5	11	5	7,5

- Euskaraz sortuberri den liburuan helduen literaturakoa da gehiena (%28,5), eta gero irakaskuntzakoa (%25) eta haur literaturakoa (%20,5). Azpimarragarria da sorkuntz liburuaren lautik hiru hartzen dutela aipatu hiru sail hauek; hirurek proportzio egokian eta ez desorekatuan, gainera.

- Berrargitarapenak ez du gordetzen aurrekoaren antzeko parekotasunik. Batez ere irakaskuntzarako liburuak dira berrargitaratu direnak (%45,5), eta hauen ondoren haur literaturakoak (%27), eta dexente gutxiago, hirugarren lekuan, helduen literaturakoak (%16).

- Liburu-mota batean kontzentratzea are handiago da liburu itzulian. Euskaratu den liburuaren %60a haur literatura kokatzen da. Irakaskuntzarako liburuak da zerrendan bigarrena, baina oso neurri apalean (%15,5).

- Bi hizkuntza edo gehiagotan argitaratu ohi den liburuak gai-sail finko samarrak izan ohi ditu urtero: batez ere Eusko Jaurlaritzak eman ohi dituen datu estatistikoak (%25), eta, aurten, liburu historikoa edo biografikoa (%15).

SAILEZ SAIL

Berrargitarapena/Sorkuntza/Itzulpena aztertuz jarraitzen dugu. Kontzeptu bakoitzaren kopuruak eta gaien arteko banaketa iadanik aztertuak ditugu.

Bestalde, geroxeago aztertuko badugu ere, aurrera deza-gun urteko produkzioaren zatirik handiena (%77,5) hiru gai-sail bakarretan pilatzen dela, gaztetxoan literaturan, helduen literaturan eta irakaskuntzan. Kontzentrazio ikaragarri hau kontutan, ezinbestekoa da, hain zuzen, aipatu hiru sail horietan nola banatzen den kontzepu hauen indarra ikustea.

Gai-saila	Eusk.	Eleb.	Berrarg.	Itzul.	Orot.
01-Orotarik	27,8	-	13,4	65,7	277
08-Irakask.	45,7	1,4	30,3	22,6	208
21-Literatura	68,7	1,9	14,1	18,7	156
11-Euskara	73,7	13,2	21,1	2,6	38

- Haur eta gazteen literaturaren sailean itzulpena da nagusi (%65,7). Ez da, egia esan, harritzekoa, sail horretantxe gertatzen bait da itzulpenaren gehiengoa ere, arestian ikusi dugunez. Haur literaturatik gehien gehiena itzuli egiten da. Liburu-mota honen erdia ere ez da euskaraz sortzen. Sail horretan berrargitaratzen denaren zati on bat ere liburu itzulia da.

- Kontzeptu ezberdinen pisua orekatuagoa dago eskolarako liburuan. Euskarazko liburuak du lehentasuna (%45,6). Berrargitarapenak ere pisu dexentea du (%30,2), eta gutxi-xeago itzulpenak (%22,6).

- Helduen literaturaren sailean euskaraz sorturiko liburu berriaren aldetik doa produkzioa (%68,5). Honen ondoan ez itzulpenak eta ez berrargitarapenak du pisu esanguratsurik. Sorkuntzaren pisua hazi egin da iaztik hona.

SAILIK HORNITUENAK


Urtero urtero lau gai-sail “nagusiak” aipatuz ibili gara. Oraingoan salbu. 1990eko liburugintzan hiru bakarrik aipatuko ditugu. Orain arte lehen lauetan sartu izan dugu beti euskararen irakaskuntzarako liburugintza ere. Aurten ere,

egia esan, laugarren tokian dator liburu-mota hori, baina produkzio txikiz, beste urtetan baino askoz txikiagoz.

Bestalde, lehen hiruen artean osatzen dute liburugintza osoaren %77,5, hau da, lautik hiru baino gehiago. Egin kontu beste liburu-mota guztien artean produktioaren lautik bat osatzera ere ez direla iristen. Irakaskuntza eta literatur liburutik aparte, beste zenbat idazten da, bada, euskaraz? Deus guti, 100 bat liburu. Horiekin “estali” behar dira gainerako premia kultural guztiak. Deus gutxi, bai, hizkuntza komunitate bat normalizatzeko.

Ordena	Saila	Gaia	Kopurua	%
1	01	Orotarik	277	33,5
2	08	Irakask.	208	25,0
3	21	Literat.	156	19,0
Orotara, sail hornituenak			641	77,5

Seinalatuaz gain azpimarratzekoa da aipaturiko hiru gai-sail horietan ematen den kontzentratzea gehitu egin dela. Bai irakaskuntzarako liburua eta bai literaturakoa gehitu egin dira biak, kontzentrazioa areagotuz.



Libururik gehien haur eta gazte literatur sailak biltzen ditu (%33,5), iaz baino gehiago. Bigarren lekuan dator irakaskuntza (%25), jautzirik handiena beronek egin duelarik. Helduen literatur liburua ere bi puntu t'erdi hazi da (%19).

Urtea joan eta urtea etorri, irakaskuntzaren eta literaturaren ardatzetan biltzen den liburu-pilaketak, batetik, eta beste kultur eremuetako liburugintzaren atrofiak, bestetik, nere ustetan, gure hizkuntz komunitatearen egoera diglosi-koa isladatzen dute, edozein diskurtsu teorikok baino argiago. Oker aritzea da liburugintza honen egoeraren errua argitaratzaileei leporatzea. Askoz sakonagoa da arazoa: hizkuntz komunitatean bertan dago gakoa, eta, beraz, neurri handi batean, hizkuntz eta kultur plangintzaren harian.


HELDUEN LITERATURA

Ordena	Azpisaila	Azpigaiak	%
1	214	Elaberria	35,26
2	216	Olerkia	17,31
3	217	Narrazio motza	17,31
4	212	Bertsoak	8,33
5	211	Historia, Kritika	7,69
6	218	Saiakera eta	7,69
7	213	Antzerkia	3,85
8	215	Herri-literatura	2,56

Seinalatu dugu azterketa honen hasieran helduen literatura izan dela aurten bigarren hazkuntzaren aldetik: aurreko urtean baino 35 bat liburu gehiago publikatu dira sail honetan.

Literatur produkzioaren barne-sailkapenari so, betikoa dager atzera nagusi: narraitiba. Narrazio motza eta luzea

batean kontsideraturik, erdia pasatxo osatzen dute bien artean: %52,5. Olerkia da hurrengoa, beti bezala. Eta beste gutxi dago hemen positiboki nabarmentzeko. Grafikoa eta taula begien aurrean edukitzea aski da errealitateaz jabetzeko.



¹ Liburuen fitxa bibliografikoan ohar hauek agertzen dira:

- Tituluaren ondoren eta parentesi artean: i = itzulpena; b = berrargitarapena; e = elebikoa.
- Izenen artean: / = itzultzailea; // = marrazkilaria edo/eta argazkilaria.
- Izenaren ondoren: * = moldatzailea edo paratzailea.

- ² Ontzat eman dudan 1990eko liburu-kopurua 828 tituluz osaturikoa da. Baina fitxa bibliografikoan kopuru hori baino gehiago agertzen dira. Urtero bezala, zenbait liburuska edo material azterketatik kanpo utzi dut aurten ere, 77 bat denetara, hizkirik ez edo gutxi dituztela eta. Dena den, zerrendan badaude guztiak. Zerrenda horretan badira, baita ere, aurreko urteko lege-gordailudunak, bere garaian jaso ez nituenak edo gerora argitara emanak. 40 bat dira horietakoak.
- ³ Hainbat lagun eta argitaratzailek emandako laguntza aitortu eta nere esker ona adierazi nahi dut, bukatzeko. Liburu askoren tituluak edota fitxa bibliografikoak hauetako askori zor diot. Bereziki aipatu nahi nituzke K. Aiestaran, Elhuyar, Elkar, Erein, Euskaltzaindia, GIE, Idatz, IKA, Itxaropena, Kriselu, Labayru, Mensajero, Santillana, Susa, UEU, Xabier Gereño. Eta modu berezi batean eskertzen dut *Zabaltzen*-eko Jon Jaka, liburuak banan bana bildu eta kontsultarako uzteagatik.

1990eko LIBURUAK: GAI-SAILKAPENA

Sailak		Zenb. abs.	%
01	Orotarik. Bibliografia, Kazetaritza. Urtekariak. Haur eta gazte-literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Bibliografia. Saiakera eta artikulua gai desberdinez. Omenaldiak.	277	33,5
02	Filosofia.	3	0,5
03	Erljioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa, pastorala. Eskritura Saindua. Eliza jeneralean. Liturgia.	22	2,5
04	Soziologia. Estatistika. Gizartearen eta gizarte-zientzien filosofia. Gizarte-doktrinak. Lana eta gizartea. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa. Hainbat estatistika.	17	2,0
05	Zientzia politikoak. Estatuaren teoria. Nazioa eta lurraldea. Finantza publikoa. Zor publikoa. Nazioarteko politika.	8	1,0
06	Zuzenbidea. Administrazio publikoa. Asistentzia soziala. Zuzenbide publikoa, politikoa, konstituzionala, administratiboa.	5	0,5
07	Arte eta zientzia militarrik.	-	-
08	Irakaskuntza. Hezkuntza. Hezkuntzaren teoria eta filosofia. Hezkuntz sistemak. Pedagogia. Hezkuntza sexuala. Irakaskuntza eskolaurrekoa eta oinarrikoa. OHO, BBB eta UBI. Goimailako eta unibertsitateko irakaskuntza. LH.	208	25,0
09	Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak.	-	-
10	Etnologia. Bizitza pribatu eta publikoetako ohitura eta usadioak. Folklore. Tradizio eta kondairak. Zuhurrizak, atsoitzak, ateraldiak eta izkirimiriak.	8	1,0
11	Hizkuntzalaritza. Filologia. Euskararen azterketa. Euskararen irakaskuntza. Hiztegia. Metodoak. Gramatikak.	38	4,5
12	Matematikak.	-	-
13	Natur zientziak. Astronomia. Nautika. Geologia. Biologia. Botanika. ..	10	1,0
14	Medikuntz zientziak. Higiene publikoa. Gaixotasunak. Terapeutika. Higienea. Sanitate publikoa. Osasunaren zaingoa.	2	0,5
15	Injinerutza.	1	0,5
16	Nekazaritza. Oihanlantza. Abelazkuntza. Ehiza eta Arrantza. Lur-lanketa.	5	0,5
17	Etxe-ekonomia.	-	-
18	Antolakuntza.	1	0,5
19	Arte ederrak. Artearen filosofia eta kritika. Arkitektura. Hirigintza. Fotografia eta zinematografia. Artesauntza. Zeramika, altzariak.	9	1,0
20	Jostaldiak. Denborapasak. Jokoak. Kirolak. Mendia.	9	1,0
21	Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsoak. Antzerkia. Elaberria. Olerkiak. Ipuinak.	156	19
22	Geografia. Bidaiak. Bidaiak, ikerkundeak. Eskualde-geografia. Bidaiari eta turistaren gidaliburuak. Euskal Herriko geografia.	12	1,5
23	Historia. Biografia. Euskal Herriaren eta honen eskualdeen historia. Biografia. Oroitzapenak.	37	4,5
	Guztira.....	828	100

1990eko LIBURUAK: FITXA BIBLIOGRAFIKOA

- Abuztuaren 15eko bazkalondoa.** (b). ARRIETA, Joxe Austin. Elkar. Donostia. 19 × 12. 152 or.
- Administrazio-lanerako oinarrizko euskara-ikastaroa.** HAEE/IVAP. Euskalduntze Zerbitzua. HAEE/IVAP. Gasteiz. 29,5 × 21. 270 or.
- Afrikako ipuin herrikoiak I.** (i). HERRIKOIA/CALLEJA, Seve/SARASOLA, J.M. Elkar. Donostia. 19 × 13. 124 or.
- Afrikako ipuin herrikoiak II.** (i). CALLEJA, Seve/SARASOLA, Joan Mari. Elkar. Donostia. 19 × 13. 148 or.
- Agenda 1.990 HABE.** ASKOREN ARTEAN. HABE. 27,5 × 21,5. 234 or.
- Agirre Lehendakaria. Ahalegin beteko bizi-tza.** (i). AMEZAGA, Elias/ALDASORO, Eburne. Lehendakaritzaren idazkaritza. Gasteiz. 27 × 20. 98 or.
- Agurea eta itxasoa.** (b/i). HEMINGWAY, Ernest/ITURRALDE, Joxe M^a. Elkar. Donostia. 19 × 12. 116 or.
- Agustin P. Iturriaga (1778-1851).** ALBERDI, Andres. E.J. Publizitate Zerbitzua. Gasteiz. 23,5 × 22. 17 or.
- Ahuntza.** (i). ROYSTON, Angela/KINTANA, Xabier//ROBSON, Eric. Fher. Bilbo. 20 × 19,5. 24 or.
- Ai, Txairo, Txairo.** (i). PALACIN, Adelina; VERDAGUER, Assumpta/MENDIGUREN, Iñaki//BAYES, Pilar. Ihar dun/Abril. Eskoriatza/ Vic. 21,5 × 15,5. 31 or.
- Ainarak urte bat bete du.** SMOLENSKY, Nora//CATALANO, Margarita. Marsig. Barcelona. 17 × 15,5. 14 or.
- Ainhoari gutunak.** SARRIONANDIA, Joseba. Elkar. Donostia. 20 × 12. 76 or.
- Aintzinako teklazko instrumentuei buruz.** FERNANDEZ IMAZ, Loreto. UEU. Bilbo. 24 × 17. 211 or.
- Aintzinaroko kultura handiak.** (i). GONZALEZ QUINTERO, Javier/OTSOA ERIBEKOA, Agustin//CAMPILLO, Susana; BESSAS, Lola; DIAZ, Eduardo. Txertoa. Donostia. 27,5 × 21. 88 or.
- Aintzirako ahotsak.** (i). LOPEZ DOMINGUEZ, Xan/ORMAZABAL, Joxantonio//LOPEZ DOMINGUEZ, Xan. Elkar. Donostia. 19 × 17,5. 27 or.
- Aita zoragarria.** (i). LOUKY, Pierre/LEGARRETA, Juan//ROSADO, Puig. Alfaguara/Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11. 84 or.
- Aitaren batean.** EGAÑA, Andoni. Elkar. Donostia. 19 × 12. 140 or.
- Aitita maitea.** (i). ABEYA, E./PUJANA, Bibiñe. IKA. Euba. 19 × 17,5. 24 or.
- Aitona maitea.** (i). ABEYA, E./ORMAZABAL, Joxantonio. Elkar. Donostia. 19 × 17,5. 24 or.
- Aiztia usnari.** ZAPIRAIN EZEIZA, Salbador. Auspoa. Tolosa. 19 × 12. 192 or.
- Albert Einstein: Kosmoa pentsagai.** ETXEBERRIA, Jose Ramon. Gaiak. Donostia. 21,5 × 17. 217 or.

- Alegiak.** PASKUAL ITURRIAGA, Agustin. Gero (Mensajero). Bilbo. 19 × 13,5. 92 or.
- Alemania berria Europa berrian.** ASKOREN ARTEAN. JAKINKIZUNAK. Donostia. 21 × 14. 179 or.
- Alex.** LANDA, Mariasun. Erein. Donostia. 21 × 15,5. 40 or.
- Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko programa.** ASKOREN ARTEAN. HABE. 21 × 15. 40 or.
- Alfabetatzerako Langaia Bizkaieratik Baturantz.** LASARTE, Asun; ZULOAGA, Idoia. HABE. Donostia. 30 × 21. 240 or.
- Alferrik hilak.** GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 20 × 14,5. 285 or.
- Ali Baba.** (i). X.X./ARBIDE, Edurne//NABAU, J. Ciemen. Barcelona. 24,5 × 18,5. 16 or.
- Alienista.** (i). MACHADO DE ASSIS/URTEAGA, J. Igela. Iruñea. 19 × 12,5. 96 or.
- Amaigabeko istorioa.** (i). ENDE, Michael/UGIDOS, Amaia//QUADFLIEG, Roswitha. Alfaguara/Desclée de Brouwer. Bilbo. 21,5 × 13. 433 or.
- Amazonia-ko misterioa.** GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 20 × 14. 120 or.
- Amerika. Aurkikuntzen garaia.** (i). GONZALEZ QUINTERO, Javier/PAYROS, Irune//CAMPILLO, Susana; BESSAS, Lola; DIAZ, Eduardo. Txertoa. Donostia. 27,5 × 21. 88 or.
- Amona eta biok.** (i). BROGER, Achim/MENDIGUREN, Xabier. Elkar. Donostia. 19 × 13. 112 or.
- Amona maite, zure Susik.** (i). NÖSTLINGER, Christine/ZABALETA, Pello //NÖSTLINGER, Christine Jr. SM. Arrigorriaga. 19 × 12. 100 or.
- Anai elkarte bat.** (i). PEREZ, Alejandro; PEREZ, Encarnación; BUENO, Carmelo. Bruño. Bilbo. 26,5 × 19. 142 or.
- Andoaingo azterketa soziolinguistikoa / Estudio sociolingüístico de Andoain.** (e). BAZTARRIKA, Patxi. UDAL EUSKARA ZERBITZUA. Andoaingo Udala; Euskararen Normalkuntzarako Batzordea. Donostia. 24 × 16. 154 or.
- Angeles Sorazu: bizia eta mezua.** VILLASANTE, Luis. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 146 or.
- Animaliak.** (i). X.X./X.X. Marsig. Barcelona. 13 × 13. 10 or.
- Anixeren liburua.** CALLEJA, Seve//LUCAS, Belén. Edelvives. Sondika. 18 × 13. 45 or.
- Antarktida. Kontinente misteriotsu hori.** ABRISKETA, Juan Ignacio. Gaiak. Donostia. 21,5 × 17. 182 or.
- Antton.** (i). IRATCHET, Jean Pierre/URKIZU, Patri*. Etor. Donostia. 19 × 12. 92 or.
- Antzerkia.** URKIAGA, Esteban "LAUAXETA". Gero (Mensajero). Bilbo. 19,5 × 13,5. 128 or.

- Antzerti eskola liburua.** SOROA, M.; BARRIOLA, A. E.J.Kultura Saila. Gasteiz. 21 × 15. 51 or.
- Arabelen belearen ipuinak.** (i). AIKEN, Joan/SURASO, Juan M^a. Alfaguara/Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 × 11,5. 265 or.
- Arazo bat hanka eta guzti.** (i). TERZI, Marinela/ETXEBARRIA AYESTA, Ramon*. IKA. Euba. 17,9 × 13. 124 or.
- Arazo bat hanka eta guzti.** (i). TERZI, Marinela/SARASOLA, Jose Antonio. Edelvives. Sondika. 18 × 13. 127 or.
- Ardatz 3. Giza-natur arloa. B-D ereduak.** LA SALLE TALDEA//ALVAREZ, Tere. Bruño. Bilbo. 26,5 × 19. 187 or.
- Ardia.** (i). ROYSTON, Angela/KINTANA, Xabier//MARTIN, Josephine. Fher. Bilbo. 20 × 19,5. 24 or.
- Argazkiak Andoain / Fotografias Andoain.** (e/i). ASKOREN ARTEAN/LARRAMENDI, Usoa. SGEP. Donostia. 29,5 × 24. 231 or.
- Argazkiak Gipuzkoa-Donostia (1961-1970) / Fotografias.** (e/i). GARMENDIA ELOSEGUI, Juan Antonio/NAZABAL, Gotzon. SGEP. Donostia. 29,5 × 24. 352 or.
- Argazkilaritzatik zinemagintzara. Bizkaia 1839-1959 / De la fotografía a la cinematografía.** (e/i). CANDINA, Begoña; MADARIAGA, Xabier/ETXEBARRIA, José Andrés; TRADUCCIONES ALGORT A. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 33 × 24. 167 or.
- Argiaren barne-distantziak.** IRIGOIEN, Imanol. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 120 or.
- Argitarapenen Katalogoa 1990-91.** X.X. Euskaltzaindia. Bilbo. 20 × 10. 84 or.
- Arinago duk haizea, Absalon.** JUARISTI, Felipe. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 208 or.
- Arinarin. Haur hezkuntza 4 urte. Bigarren hiruhilebetea.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBATUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.
- Arinarin. Haur hezkuntza 4 urte. Hirugarren hiruhilebetea.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBA TUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.
- Arinarin. Haur hezkuntza 4 urte. Lehen hiruhilebetea.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBATUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.
- Arinarin. Haur hezkuntza 5 urte. Bigarren hiruhilebetea.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBATUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.
- Arinarin. Haur hezkuntza 5 urte. Hirugarren hiruhilebetea.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBA TUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.

- Arinarin. Haur hezkuntza 5 urte. Lehen hiruhilebeta.** (i). ASKOREN ARTEAN/ZUBIA, Mariasun; SUAREZ, Jon; BILBATUA, Marian. SM. Madrid. 20,5 × 28. 210 or.
- Arkatza. Bigarren hiruhilekoa. Eskolaurrea - 5 urte.** (i). ASKOREN ARTEAN/KALEGANA//ASKOREN ARTEAN. Edebé. Barcelona. 21,5 × 27. 256 or.
